

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-09-17  
ASTELEHENA  
377. ZENBAKIA  
9. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Patxi Lopez sozialisten etxe berrian

Mitin politikoa egin zuen Arrasaten | 4



Harrera jendetsua izan zuen. | J.CALLEJA

'Pepu' Hernandezen bisita izan zuten Natra-Oñatiko jokalariek | 26



Dena prest dago hil bukaeran mahatsa batzen hasteko | 26



San Martinen bideoak ikusteko aretoa bete zen Bergaran | 4

Peon Kurtz abeslaria, kontzertuko une batean, probokatzaile.



## Def Con Dos, probokatzaile

Cesar Strawberry eta bere mutilek duela 20 urteko indar eta militantzia berberaz jarraitzen dute | 30

JAGOBA DOMINGO

# Haurren danbor hotsak San Martinak agurtzeko

Urteurreneko ekitaldiek ukitu berezia eman die jaiei | 12



Neska-mutil koadrila bat, atzo, haurren danborradan. | JULIO CALLEJA

## Omenaldi jendetsua Lucio Muñoz, Arantzazun

Basilikako absidearen egilearen lagun mordoa batu zen | 30



Absidearen irakurketaren unea. | J.CALLEJA

## MUk gaur hasiko du ikasturte berria, Aretxabaletan fakultatea estreinatuz | 5

**%2 ko**  
deskontua



AVIA MECA  
gasolindegia eskutik.

► Zoaz 21. orrialdera.

# Dena prest dute hil bukaeran mahatsa batu eta txakolina egiteko

- ▶ Aurtengo uda beroa eta oso lehorra izan da
- ▶ Debagoiengan hiru txakolin ekoizle daude
- ▶ Baserri askotan etxerako txakolina egiten dute



Oñatiko Murgialdai baserriko mahastian dena gertu dute hil bukaeran mahatsa

## ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Aste bukaeran ospatu dute Zarautzen mahats bilketaren jaiak. Gurean, jairik ez, baina lana laster egin beharko dute txakolingileek; izan ere, txakolingileek dena gertu dute hil bukaeran mahatsa batu eta aurtengo uzta nolakoa izan den ikusteko. Uda beroa eta lehorra izan da aurtengo; ondorioz, askok uste zuten aurtengo mahats-bilketa aurreratu egingo zela. Hala ere, azkeneko egunetan egin duen euria tarteko, mahatsa ohiko garaian jasoko dutela esan digute. Beste urte batzuetan baino mahats gutxiago jasoko dute aurtun.

Debagoiengan hiru dira Getariako Txakolina jatorri izenaren barruan dauden ekoizleak: Arrasateko Egi Andi baserriko Kataide txakolina, Bedoñako Arta-Zubiagako Otxia txakolina eta Oñatiko Upaingo Upaingo txakolina. Txakolin ekoizle horiez gain, badira beste baserri batzuk Getariako Txakolina izenaren barruan daudenak eta mahatsa Getariako upeltegi bati saltzen diotenak. Eta, nola ez, baserriar asko dira etxerako txakolina egiten dutenak.

## Mahatsaren kalitatea

Aurtengo mahatsa ona izango dela uste dute ekoizleek: "Kalitate aldetik ematen du ona izango dela, uda ona egin duelako, lehorra", azaldu du Haritz Galdosek, Oñatiko Murgialdai base-

errikoak. Horrek mahatsaren osasun egoera oso samurra izatea ekarri du eta mahats sana izan dute. Hala ere, abuztuko tenperatura altuek eta batez ere eguzki-kolpeek hainbat mahats sorta erre egin dituzte.

Gainera, azkeneko egunetan egin duen euria ere onerako izango dela uste dute: "Orain euri apur bat egiten ari da eta nik uste dut hori onerako izango dela. Dagoen mahatsa handitu egingo da eta pitin bat gehiago ere irten-

go da", dio Galdosek. Tenperatura altuek ez dute zertan eraginik izan zaporean. Txakolina nola egiten den, hori hartu behar da kontuan. Hala ere, teorian, gradu gehiagoko txakolina egiteko aukera egon beharko litzateke.

## Laster hasiko dira sagardoa egiteko sagarrak batzen

Sagarrondoak sagarrez lepo daude, nahiz eta aurtun sagarrak txikiagoak izan euri faltagatik. Hain zuzen, uda lehorra izateak eragina izango du: "Nik uste dut kalitate onekoa izango dela, beroagatik azukre askokoak izango dira-eta", azaldu du Juan Antonio Aretxagak, Aramaioko Mendibitzu baserriko sagardogile eta Arabako Sagardogileen Elkartearen presidentea.

Datorren astean hasiko dira sagarrak batzen inguruko baserrietan. Aramaioko sagardogileen elkarteak uste du eta han egiten dute zukua. "Zukua egiteko makinak ditugu elkarteak, baina hartzitu etxean egiten du bakoitzak", dio Aretxagak. Zukua elkarteak bertan pasteuriza daiteke. Egun, oso preziatua da sagar zukua: "Ez dauka alkoholik, eta, horregatik, umeez ere edan dezakete", dio Aretxagak. Salmenta zuzenaren bidez ekoizleek baserrietan erosi ahal da zukua,



Sagarrak batzen. | SAGARDOMUNDUA

eta baita azoka berezietan ere. Gaur egun 33 ekoizle daude Aramaioko Sagardogileen Elkarteak sartuta. Gehienak Aramaioko bertakoak dira, baina arrasateko bi ekoizle eta eskoriatzako ekoizle bat ere elkartearen kide dira.

## 'Hondarribi zuri' mahatsa

Txakolina egiteko *Hondarribi zuri* mahatsa erabiltzen dute, gehienbat, ekoizleek. Horrez gain, *Hondarribi zuri zerratia* (Petit Courbu) eta *Riesling* motak ere erabiltzen dituzte. Hori da Upain upeltegiko Victor Leiba enologoak esan diguna.

Bergarako Amatiño baserrian etxerako txakolina egiten du Carlos Mendizabal txakolingileak. *Hondarribi zuria-z* gain, bertakoa den eta betikoa den mahatsa ere erabiltzen du. Oñatiko Murgialdai baserrian, bestalde, 1750. urte inguruko argazki bat dute; bertan ikus daiteke garai hartan mahatsa zeukatela etxean. "Orduko mahatsak bizirik iraun du, eta azkeneko landaketan sartu egin dugu", azaldu du Galdosek. Laktzak haztegi eraman dituzte, sustraiak atera eta gero landatu egin dute.



xarma  
edertze zentroa

943 79 91 25  
ARRASATE

Xarma eraberrituta dator,  
helbide berrian:

# Olarte 31n

(Beinke ondoan)

**Adi egon!**  
Laster izango gara  
zuekin berriz ere!



batzeko. | ARANTZAZU EZKIBEL

**Upainen, makinekin**

Leiba enologoak azaldu du mahats mota bakoitzak uzta jasotzeko garai bat izaten duela. Beste urte batzuetan, esaterako, astebeteko aldearekin jaso izan dute. Mahatsa jasotzeko makinak dituzte Upainen: "Makinek aukera hori ematen dute; eskuz jaso behar izanez gero, dena momentu berean egin beharko genuke".

Aurtengo udari buruz zera dio Leibak: "Guk ez dugu lehorterik igarri, lurzorua azpialdean hezetan handiagoa dugu-eta. Neguan euri asko egin zuen, eta, hain zuzen, hori da gure mahastiak duen onena: neguko euria. Lur gainean lehorte arazoak egon ahal izan dira, baina lur azpian ez. Ez dugu ur faltarik izan".

Uzta jaso aurretik datuak ematea zaila den arren, Leibak dio 60.000 kilo inguru jasoko dituztela Upainen. "Gure txakolina berezia da. Mahatsa guztiz heldu arte uzten dugu sailean, eta horrek alkohol maila 12 gradu edo 12,5 gradukoa izatea dakar. Egitura, sakontasun eta konplexutasun handiagoko ardoa da. Maiatz inguruan sartzen ditugu botiletan", dio enologoak. "Esan

**ESANAK**

**"Gure txakolina berezia da; mahatsa guztiz heldu arte uzten dugu"**

VICTOR LEIBA | ENOLOGOA

**"Udaberrian atzeratu egin zen loratzea, baina gerora bero egin du"**

FELIX ETXAGIBEL | EKOIZLEA

daiteke botilan gehiago irauten duten ardoak direla. Mahaiko ardo moduan gehiago erabiltzen da barrako ardo moduan baino", gaineratu du Leibak. "Guk uste dugu merkatuak eskatzen duen ardo mota dela, eta horregatik hartu dugu bide hori", dio.

**Otxia: freskoa eta usaintsua**

Artazubiaga baserriko Felix Etxagibel buru-belarri dabil uztarekin. Hil bukaeran jasoko dute mahatsa: "Etxekook jasotzen dugu, eskuz", dio.

Aurtengo uzta beste urte batzuetakoa baino txikiagoa izango dela dio, baina, era berean, kalitate onekoa. "Udaberrian atzeratu egin zen loratzea, ohi baino astebete geroago loratu zuen", azaldu du Etxagibelek. "Baina gerora egin duen beroarekin, betiko martxa harrapatu du". Azkeneko aste hauetan egin duen euriak oso ondo etorriko direla gaineratu du.

Otxia txakolina freskoa, usaintsua eta suabea dela azaldu du Etxagibelek. 1988an hasi ziren Artazubiaga baserrian txakolina egiten eta 2007az geroztik Getariako txakolinaren izendapena dute. "Mahatsa batu eta Getariara eramaten dugu txakolina egitera", dio Etxagibelek. Otsaila inguruan sartzen dute botiletan sagardoa eta ondoren aurkezpena egiteko ohitura izaten du Etxagibelek. Txakolin ona egin dezatela denek. Guk gustura dasatuko dugu!



Bergarako Amatiño baserrian mahatsa batzen. | GOIENA



Aurtengo mahatsa. | A.E.



Upaingo mahastian mahatsa batzen. | GOIENA

**Baserri-paisaien balioak identifikatzen**

Deba Garaiak, Debagoienako Landa Garapen Elkartearekin eta Gipuzkoako eta Bizkaiko beste zortzi landa garapen elkarterekin batera, landa-paisaia atlantikoaren balioa agerian jartzeko ekimena martxan jarri du. Eskualdeka, baserri-paisaiek dituzten elementu bereizgarriak identifikatzeko eta horiek kontserbatzeko proposenak diren ekintzak proposatzeko parte-hartze saio irekiak antolatuko dituzte. Azken hamarkadetan lehen sektoreak izan dituen aldaketan ondorioz, baserri-paisaiek nabarmen aldatzen ari dira, eta aurrera begira hirietatik kanpo dauden landa-paisaia horiek nolakoak izatea nahi dugun erabaki beharra dago. Hausnarketa hori herritarren parte-hartzearekin egin gura dute, eta, hain zuzen, horretarako antolatu dituzte parte-hartze saioak. Debagoienean irailaren 20an (19:00etatik 21:00etara) eta urriaren 4an (19:00etatik 21:30era) izango dira saioak Oñatiko Arantzazu auzoko Aitzazabal auzo-etxean. Saiotetan parte hartzeko interesa dutenek alde aurretik konfirmatu behar dute, posta elektronikoz edo telefonoz ([paisaia.atl@paisaia.com](mailto:paisaia.atl@paisaia.com), 943 33 50 48).

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**



Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak  
Leihoak · Tarimak  
Egur lanak



# San Martinek munduan utzitako arrastoa ezagutu zuten bergararrek

Udaletxe ondoan dagoen Surragako gurutzean erreplika ere desestali zuten

TXOMIN MADINA | BERGARA

Gehiago edo gutxiago, baina bergarar askok izan dute San Martin Agirre zenaren bizitzaren berri. Egubakoitzean Bergarako udaletxean egindako bideo emanaldira joan zirenek baina, Santuaren garrantziaren eta Japonian utzitako arrastoaren inguruan gehiago jakin ahal izan zuten.

Bideo emanaldian gainera, aurretik skype bidez grabatutako Nagasakiko 26 Martirien Museoko zuzendari Renzo De Lucaren azalpenak entzun ahal izan ziren.

## 1931ko pelikula japoniarra

Askotarikoak izan ziren bideoak: 26 martirien kanonizazioaren 150. urteurreneko ospakizunetakoak hainbat, baita 26 Martirien Tenpluaren irudiak ere: bai duela 50 urte nola eraiki zuten, baita egun nolakoa den ere.

Bitxikeria gehiagoz ere gozatu ahal izan zuten aretoa bete zuten herritarrek: 26 martiriak protagonista dituen 1931ko pelikula japoniar bateko, edo baita oraindik estreinatuta gabe dagoen animaziozko laburmetrai ingeles bateko




Miguel Angel Elkoroberezibar bideo-emanaldian azalpenak ematen. | JULIO CALLEJA

trailerra ere. Duela 50 urte egin zen Surragako gurutzea altxatu zeneko argazkiak ere erakutsi zituzten eta Miguel Angel Elkoroberezibar ikertzaileak hainbat azalpen eman zituen.

## Surragako gurutzearen erreplika

Bideo emanaldia amaitzean, aurreantzean udaletxe ondoan egongo den Surragako gurutzearen erreplika desestali zuten Jesus Elortza alkateak eta Leire Iruin

zinegotziak. Ekitaldian egon ziren baita ere Balen Moñux ekimenaren bultzatzailea eta Jesus Arregi aparejadore ohia, duela 50 urte Surragako gurutzea egiten ibili zenetako bat.



M. A. ELKOROBEREZIBAR IKERTZAILEA

"Egun hunkigarria izan da. Azkar lan egin arren, jasotako laguntzarekin esan daiteke emaitza ona izan dela. Pozgarria da ikustea San Martinek berak zein dimentsio hartu duen bai hemen eta baita hemendik 10.000 kilometrotara ere".



BALEN MOÑUX ESZENOGRAFEOA

"Nire hasierako ideia zen karrozan aterako zen erreplika bat egitea, baina gero udaletxe ondoko leku finko baten jartzea pentsatu nuen, Bergarako txoko ederrenetakoan. Asmoa da oroitzen bat uztea, egun haurrak edo gazteak direnek hemendik 50 urtetara lan hau berriz ere errepikatu dezaten".

## Herrirak deituta, elkarretaratzea egin zuten zapatuan Aramaion

TXOMIN MADINA | ARAMAIO

Herrira ekimenak deituta, 30 lagun inguru elkartu ziren zapatuan Aramaio plazaan egindako elkarretaratzean Luis Mari Azkargorta Kanto herriko presoaren askatasuna eta Parot doktrinaren aplikazioa bertan behera uztea eskatzeko.

13:00etan izan zen elkarretaratzea, eta bertaratu zirenek Kanto etxera. 197/2006 doktrina ez. Kondena bete dutenak herrira leloa zeraman pankarta atara zuten. Salatu zuten Parot doktrina aplikatuta Kanto 2018-ra arte egon behar dela espetxean, eta gaineratu zuten, 2006az geroztik etxean egon behar lukeela.

## Euskal Herri mailan

Aramaio elkarretaratzea, baina, ez zen atzoko elkarretaratze bakarra izan. Izan ere, antzerako ekimenak burutu zituzten Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat herritan. Aramaioko Herriratik azaldu zuten, asteon Herrirako Euskal Herri mailako delegazio bat Estraburgora joan da hango parlamentarioekin bildu eta Parot doktrina deitzeko eskatzeko, eta horren ondorioz sortutako lan-ketaren emaitza izan ziren zapatuko elkarretaratzeak.

Gogoratu zuten era berean, aurrera jarraitzen dutela hila-beteko azken egubakoitzetako elkarretaratzeekin.



Zapatuko elkarretaratzeko une bat. | GARAZI ERIZ

## Patxi Lopez: "Ez gaude independentziaren alde horrek herria banatzen duelako"

Lehendakaria Arrasaten egon zen sozialisten egoitza berria inauguratzen

XABI URZELAI | ARRASATE

Arrasateko sozialisten egoitza berriak zabaldu ditu ateak jada. Jende mordoak gerturatu zen egubakoitzeko inaugurazio ekitaldian, eta Lehendakariaren etorrerak ikusmina piztu zuen.

Arrasateko sozialisten idazkari nagusi Paco Gartzia onartu zuen aurreikuspen guztiak gainditu zituztela: "Jende mordoak etorri da, eta oso pozik gaude. Askatasunaren egoitza da hau, eta ateak denendako zabalik daude. Ideia berriak dituztenendako, eta baita kritika bat egin nahi duenendako ere".

## Lopezzen berbaldi politikoa

Hain zuzen, Lehendakariak Paco Gartzia aipatu zuen komunikabideen aurrean egindako aurkezpenean. Harro dagoela Arrasateko sozialisten ordezkaria izateaz, eta gogoan izan zuten, baita ere, ETAK hildako Isaias Carrasco ere. Hauteskundeak gainean, berbaldi politikoa egiteko ere aprobetxatu zuten sozialistek. Iñaki Arriolak gogor kritikatu zuen Iñigo Urkullu, etengabeko borroka bilatu nahian dabilelako. Eta Lopezek gaineratu: "Inora ez garamatzaten borroken kontra gaude, herri honek



Garcia, Arriola eta Lopez Arrasaten. | JULIO CALLEJA

ez duelako halakorik behar, eta bai elkar-ulertzea". Argi utzi zuen, baita ere, PSE ez dagoela independentziaren alde: "Proposamen horiek herria banatzen dutelako, eta guk batasuna behar dugu".

Ekitaldian egon ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile Idoia Mendia, Bizkaiko idazkari Jose Antonio Pastor, eta Isaias Carrascoren alargun Marian Romero.



Eraikinaren aurreko aldea; egurrezko egitura dauka. | GOIATZ ARANA



Egurak eta kristalak ukitu modernoa eta goxotasuna ematen diote liburutegiari. | GOIATZ ARANA



Edizio gela hirugarren solairuan dago. | GOIATZ ARANA



Mac ordenagailuekin hornitutako gela, bigarren solairuan. | GOIATZ ARANA

# MUren fakultate berria gertu dago eta bihar hasiko da 2012-2013 ikasturtea

Gaur egingo du MUK ikasturtearen irekiera ofiziala, 12:00etan, Donostian

**MAIDER A./GOIATZ A.** | ARETXABALETA MUKo Ikus-entzunezko Komunikazioko 120 ikaslek martitzenean estreinatuko dute Aretxabaletako fakultate berria. Ikasketak horiei begira antolatu eta hornitu dute eraikina, arduranak oso pozik geratu dira emaitzarekin eta diote ikasleek ere sumatuko dutela aldea. Elementu modernoak eta egurrezko egitura uztartzen ditu.

Uste baino gehiago luzatu dira MUren Aretxabaletako fakultate berriko lanak, ia bi urte iraun dute; iazko ikasturterako zabaltzea zen asmoa, baina, baimen eta finantzazio kontuak tarteko, ez zen posible

izan. Jada errealitate bat da, ordea, eta ia gertu dago 2012-2013 ikasturtea bertan hasi ahal izateko.

Huheziko dekanok Nekane Arratibek dio ezinbestekoa zela hala izatea. Izan ere, Bologna planarekin, diplomatura eta lizentziaturak desagertu egin dira, eta gradu izatera pasa dira, eta, ondorioz, irakasle ikasketak hiru urtekoak izatetik lauokak izatera pasa dira. Horrek ekarri du Eskoriatzatik ikaslerik ez irtetea eta orain arteko kopuruari aurten lehen maila egingo duten ia 200 gehitzea automatikoki. Ezinbestekoa zen, beraz, Ikus-entzunezko Komu-

nikazio ikasketak handik ateratzea. Are gehiago, kontuan izanik diplomadunak diren irakasleei gradua lortzeko aukera ematen dieten blended ikasketak ere sartu dituztela eskaintza berrian eta arrakasta izan dutela.

## Egurra nagusi

Egurrezko egitura eta elementu modernoak ditu eraikin berriak. Argitsua da Aretxabaletako eraikina, eta modernoa, nahiz eta egurrezko egiturari eutsi dion. Oso pozik geratu dira emaitzarekin, eta ikasleek ere sorpresa hartuko dutelakoan daude. 2.700 metro koadro ingu-

ru ditu, hiru solairutan banatuta dago: behekoan daude jan-gela, edozein irakasgaitarako erabili ahal izango den gela handi bat, liburutegia, platoa eta aurrera begira ikuskizun ezberdinetarako izango den beste gela bat; bigarren solairuan ia guztiak gelak izango dira eta infogela handi bat ere egongo da, Mac ordenagailuz hornitua; hirugarren solairuan irakasle gela, ikus-entzunezkoen alorrean proiektu berriak garatzeko laborategi bat, edizio gelak, animazio gela eta irrati gela egongo dira, teknikoagoak diren ikasgaiak lantzeko espazioak, hain zuzen ere.

## Ikasturteak eduki berriak izango ditu

Huhezin argi ikusten dute etorkizunari begira berrikuntza, sormen eta ekintzailtasun gaitasunak lantzen jakitea izango dela balio erantsia, eta hori jorrazera bideratutako ikasgaiak txertatu dituzte hirugarren eta laugarren mailatan. Martitzenetik aurrera, egunero-egunero hartuko ditu eraikin berriak Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak, 120 inguru guztira, eta master batzuk ere emango direnez bertan, momentu batzuetan eraikina bere gaitasunaren ehuneko ehuneko egongo da ia. Gaur da MUren ikasturte irekiera ofiziala, Donostiako Basque Culinary Centerren, 12:00etan.

**LENIZ**  
ESKORIATZA



## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



Mondragon Unibertsitatea izan da Garaia Berrikuntza Gunean kokatu den azken erakundeatariko bat. | GOIENA

# Berrikuntza eta ikerketaren alde jarraitzen du Garaiak

- ▶ Hamabi urte ideia eduki zenetik; bost urte Garaiak atek ireki zituela
- ▶ Krisialdian ere berrikuntzaren alde inbertitzea garrantzitsua da

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Duela bost urte inauguratu zuten Garaia Berrikuntza Gunea Arrasaten. Halere, duela hamabi urte hasi ziren horrelako gune bat egokitzeko beharrenez ideia garatzen. "Gakoa lehenengo pentsaerak errealitate bihurtu direla da, eta beraz, egitasmoen forma eman diegu eta pixkanaka eraikitzen ari gara gure proiektua". Hala adierazi du Andoni Gartzia kudeatzaileak.

**Urratsez urrats, lorpen ugari**  
Gartzia GOIENARI adierazi dio-

nez, hasi zirenean 15 urtetara begiratu eta berrikuntza eta gizar-teknologiek lotutako 1800 lanpostu martxan jarriko zituztela aurreikusitako zuten.

"Hamabi urte pasata 835 lagun dabilta berrikuntzarekin lotutako lanetan. Horrek, urtero zenbait agentek 22 milioi euro ingururekin berrikuntzagatik esfortzu handia egiten dutela honek aurrera egin dezan adierazten du".

Beste datu interesgarri bat ere eman dio Gartzia GOIENARI. "Garaia Berrikuntza Gunearen

inguruko enpresek gutxi gora-behera 73 milioi euro fakturatzen dituzte urtero".

Datu horien arrazoiatariko bat, Arrasaten kokatutako berrikuntza gunearen oinarriak geroz eta sendoagoak izanda, enpresa ugari bertan kokatzeko apustua egin izana da. "Adibide bat ipintzearen, garrantzitsua izan zen ikerketa egiteko Ederlan bere instalazioetatik irten eta gurera etortzea. Edota Mondragon Unibertsitateak ikasketentzako gune bat ireki izanak ere indarra ematen dio guneari".

**Krisiaren aurrean, berrikuntza**

Nahiz eta datu positiboez hitz egin, krisiak nolabait eragin die la adierazi du Gartzia. "Zerbait zatorrela nabaritu genuen 2009an. Ondorioz, etorkizuneko proiektuak modu ezberdin batetan planteatzen hasi ginen; esaterako, eraikin berriak egin beharrean, orduan genituenak indartu eta beste batzuekin elkarlana sustatu behar genuela pentsatu genuen".

Bestalde, maiz entzuten da krisiari aurre egiteko ikerketa eta berrikuntzaren aldeko apus-

tua egin behar dela. Badirudi maiz kontraesana dela, krisialdian milioiak inbertitu behar izatea. "Hemen batez ere aurrera eramaten den ikerketa aplikatua da, hau da, berrikuntzak merkatutzeko egin beharrekoaren ikerketa. Horrek ez du beste modu bateko inbertsioek beste diru eskatzen. Aldiz, Garaian badago gela zuria deitzen dioguna; goi mailako ikerketak egiten dira bertan eta horrek eskatzen duen diru kopurua handia da. Garrantzitsua errekurtsoak nola erabiltzen diren da, eta berrikuntzaren alde apustu egitea, beti".

**Gakoa, lana eta isiltasuna**

Berrikuntzarekin lotutako albisteak ez dira sarritan medioetan agertzen eta arrazoi batengatik izaten dela adierazi du Andoni Gartzia. "Produktu berriak eta berrikuntzarekin lotutakoak merkatura iristeko gakoa, enpresa baitako eta beste erakundeekin egiten den lan hori isiltasunean eramatean datza askotan".

Proiektua martxan ipini zutenetik gaur arte helburu jakin batzuk lortu arren, oraindik ere erronka handiak dituzte aurretik Gartzia esanetan.

## Mondragon Lingua AEBtara hedatu da

Itzulpen eta komunikazio arloa jorratzea du helburu enpresa euskaldunak

Z.V.D.M. | ARRASATE

Mondragon Lingua erroka berria hartu du bere gain. Aurtengo maiatzean Amerikako Estatu Batuetara eginiko protokolozko bidaiak bere uztak eman ditu. Izan ere, beste filial bat ireki du AEBko hiriburuan, Washington DCn: Mondragon Lingua USA.

Arrazoi ezberdinak medio joan dira Atlantikoz bestaldeko herrialdera. Besteen artean, itzulpen munduan aurrera egiteko aukera handia ikusten dutelako erabaki dute bertan kokatzea. Eta bestetik, orain arteko bezeroak (Nazio Batuak, IBM, Nazioarteko Moneta Funtsa...) zonaldean daudelako kokatuta.

**Itzulpen eta komunikazioa**

Comunicación Multilingüe enpresa madrildarra erosi zuen Mondragon Lingua 2011n. Orduan hasi ziren estrategia plana garatzen. Hamisi Amani-Dove fitxatu du talde euskaldunak proiektuen komertzializazioa zuzentzeko; ongi ezagutzen du merkatu amerikarra.



Amani-Dovek (ezkeretik bigarrena) zuzenduko ditu proiektuak. | MONDRAGON

Carlos Gutierrez | Hezitzailea

# "Haurrekiko mugak gomendagarriak eta osasuntsuak dira euren hezkuntzarako"

- ▶ Carlos Gutierrezek haurtzaroari buruzko berbaldia egingo du irailaren 19an Aretxabaletan
- ▶ Hurrei jarri beharreko mugen eta arauen gainean egingo du berba Arkupen

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Cristobal Gutierrezek haurtzaroari buruzko hitzaldia egingo du Aretxabaletako Arkupen, hilaren 19an, 18:00etan. Gutierrezek 31 urte daramatza helduen formazioan, eta 18 haurtzaroaren eta familiaren zaintzan. Kataluniako lehen bi eskola libreen sortzailetako bat da Gutierrez. *CAI Cuidado del Alma Infantil* proiektuko arduraduna ere bada.

**Azkenaldian, haurren hezkuntzaren inguruko galderekin izenburu bakarrik dute: mugak, limiteak. Nola begiratzen da gai hau Haurraren Arimaren Zainketatik (CAI)?**

Gure haurrekiko mugak, gomendagarriak izateaz gain, osasuntsuak eta beharrezkoak dira beraien hazkuntzarako. Baina, helduok muga hauekiko hainbat zehaztasun ahaztu egiten ditugu: gure haurrari muga bat jartzeko arrazoa ez luke aspertu eta nekatu egiten gaituelako izan behar. Hau alderdi garrantzitsua da, baina ez helbururik oinarritzkoena. Mugaren asmoa haurrak bere inteligentzia garatzea da, inguruarekin harremanetan ipintzeko duen gaitasuna ahalbidatzea eta bere onena ateratzea.

Limiteak batu egin behar luke, banandu ordez. Hau da, gure azala, esaterako, gure barrualdearen eta kanpoaldearen artean muga garbia jartzen duen organoa da; horrela izango ez balitz, hil egingo ginatke. Dena den, azalak ez gaitu gure ingurutik guztiz babesten, kanpoaldearekin harremanak izaten uzten digu, eta kontaktuan mantentze hau atsegina izateaz gain, arriskurik bate dagoen antzemateko, besteak beste, beharrezkoa egiten zaigu. Hala bada, muga bat jartzeko ez da nahikoa aurrera egin ahal izateko jarraibide batzuk izatea. Pertsona helduari zera eskatzen dio: muga unerik proposenean jartzea, intentsitate egokiarekin eta kanporatu ordez, integratuz. Hori guztiori, ezinbesteko maitasunaren eskutik, maitasunik gabe esaldirik hoberena hutsa da-eta.

**Sakona da mugen gaia.**

Hain zuzen ere, haurrak zaintzeko konplexutasun honek gure txikiaren hezkuntza interesgarria eta ederra bilakatzen du, bizitzaren alderdi oso garrantzitsuak ulertzen eta gure jakinduria garatzen laguntzen digulako. Gure haurrek gure onena eta okerrean islatzen dute, horregatik beraien sintomak, gu heldu bezala hobetzeko aukera gisa hartzea lehen pausua da.



Carlos Gutierrez hezitzailea Aretxabaletan egongo da | GORETTI ALONSO

**Haurrak gero eta gutxiago kontrolatzen dira; helduok oso galduta gaudela pentsarazi behar dugu?**

Guri, helduoi, begiratu besterik ez dago mugen gaiarekin argitzen ez garela ulertzeko: neurridunak izan nahi dugu eta larregi eta gaizki hitz egiten bukatzen dugu; bestetan, gure bikotekidearekin eztabaidatu eta min egiten diogu, geure buruari ez egitea proposatu arren; gaixoak eta gizenak bihurtu arte, jan eta edan egiten dugu; alkoholarekin eta beste hainbat drogekin egiten diren gehiegikeriak arazo izaten jarraitzen dute.

Oro har, gizateriaren handinahia hankaz gora dago, muga eskasiak hondaketak sorrarazten ditu eta gudan, besteengan eta elikatzen gaituen planetarengana mina eragiten du. Ez dakigu gure pentsamenduei, ikusiezinei, hase-

rrealdiei, ezta beldurrei ere, mugarik jartzen. Horrela igarotzen ditugu gauak lorik egin gabe, norbaitek esan digunaren ondorioz arduratuta, gure buruari min egin arte. Mugen kontu honetan helduoi hobetzea falta zaigu. Gure haurrak hobetze bidean aukera bat dira, euren muga faltak gure gabeziak eta nahasketak islatzen dituzte-eta.

**Zer egin behar da orduan?**

Horiek ongi hartzen diren erantzunak izan ohi dira, baina elbarritu egiten zaituztenak ere bai, pentsatzen eta norberagatik ekiten ez dutelako baimentzen. Imajinatu, futbol entrenatzaile bat garela. Ziurrenik bat egingo dugu entrenatzailearen jarduna ez dela egin daitekeena eta ezin daitekeena egin soilik esatea. Hori baino ez balitz izango, mundu guztiak balioko luke entrenatzaile ona izateko.

Futboleko entrenatzaile batek beraien jokalaria zaindu behar litzuke, batez ere ezusteko uneetan jokaldi egokienak ikusi eta sortu ahal izateko, beraien potentzial eta gaitasunetan konfiantza izaten jakin dezaten, futbola ezustekoa baita. Jokalariak entrenatzean, mugak barne daude, baina baita beste hainbat ezinbesteko faktore ere. Argibide logikoak, baina une desegokian ematen dituen entrenatzaileari azkenean, ez zaio jaramonik egiten. Unean uneko, serio zein goxo jartzen ez dakien entrenatzaile batek ezin du egokiro bere lana

bete. Beharrezko afektua erakusten ez duen entrenatzaileak ezin du bere jokalarietatik beraien onena atera.

Gure lana aita, ama edo zain-tzaile bezala askoz garrantzitsua da, delikatuagoa eta sakonagoa da futboleko entrenatzaile batena baino. Bizitza futboleko txapelketa bat baino askoz konplexuagoa eta ustekabeagoa da.

**Gizarteak hau guztiak baloratzen du?**

Egia da, baina horri guztiari erremedio bat jar diezaikegu. Hala bada, aitaren, amaren edo zain-tzailearen papera ongi bete nahi badugu, petatxuak jartzea baino zerbait gehiago egitea dago-kigu, ideologiak eta teorikoak alde batera utzita. Guri, haur horien bihotzetara heltzea dago-kigu; hauek zaintzea, mundu konplexu honetan ekiten eta mol-

**"Bizitza futbol txapelketa bat baino askoz konplexuagoa da"**

**"Gure seme-alaben haurtzaroa helduaroaren oinarria da"**

datzen jakin dezaten, eta hau dena norberaren beldurrak, haserreak, ezinikusiak, ondoezak... ulertzeko jarrerarekin soilik lor daiteke, hori guztia gainean darabagun zama baita, egoera askotan, maitasunez, aurrera egiten uzten ez diguna.

Haurren zaintzan mugen gaiak zati txiki bat baino ez du hartzen, garrantzitsua bai, baina zati bat baino ez. Sakondu ezazu bizitzan, eta honekin zure haurraren bihurrieriekin konponbidea emateaz gain, zu zeu ere berrizatu egingo zara, gainetik pisu handia eta estutasunak kenduko dituzu eta hainbesteko samintasunez oroitzen duzun alaitasuna bereganatuko duzu.

**Adibide bat ipiniko dizut. Jatorrietan zerbait jan eta jolastera joaten den umea daukagu. Jolasa utzi eta jatera joateko eskatzen badiogu, haserretu egiten da. Nola jar dezakegu praktikan zuk esandako guztia?**

Lehenik eta behin, haur txikiaren jolasteko desioa une horretan duen benetako beharra den antzeman behar dugu. Horrela bada, jolasten utzi beharko genioke, jolastea sarri, askoz osasuntsuagoa baita zure haurrarentzat, jatea bera baino. Alderantziz, geldi egon ezinik, urduri dagoelako jolasten hasten bada, atentzioa bereganatu nahian adibidez, orduan, besotan har dezakezu eta gauza maitagarriak esan. Arreta hori ematen badiogu, bost minututara lasaitu egingo da eta lasaitasunez jatea nahi izango du.

**Baina denborarik ez badaukagu behar duen guztia emateko?**

Ahal dugun maitasun guztia eman eta haurraren egonezinenaren sustraia zein den ezagutzea komeni da. Bideetan ingeneria den lagun bat dut. Behin autopista bateko zubi bat eraikitzen zebilela bisita egin nion eta, hormigoiak jasan behar zuen prozesuaren garrantziaz hitz egin zidan: presarik gabe egin beharra zegoela, guztiz egin orduko pisua gainera jaurtitzen baldin bazitzaion, zubiak behera egingo lukeela. Gure seme-alaben haurtzaroa helduaroaren oinarria da.

Oinarri horiek sendotzeko behar besteko denbora hartu behar dugu. Hala eginez gero, nagusia egiten denean entzuten jakingo du, presioak eramangarri egingo ditu, ez da guztiaz kexatuko eta irtenbide bat ikusiko du, ez dagoela iruditzen zaigunean ere.

## ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI  
http://goiena.net/iritzia/



## Islandiako berririk ez

**K**risiari buruz geroz baino gero etorkizun beltzagoa azaltzen diguten komunikabideek egunero aipatzen dizkigute Grezia, Portugal, Italia, Espainia... Ikusi al duzue Islandiako berririk?

Europako iparraldean dagoen 320.000 biztanleko herrialde honek krisi latza izan zuen 2008an banku sistemaren gehiegikeriak zirela eta. Ekonomia oparoenetakoa zuen herrialdeak itzelezko jaitziera izan zuen, euren monetaren devaluazioa eta langabezia handia.

Herritarrek haserretu, antolatuta eta mobilizatzen hasi ziren 2009an. Politikariak karguak uztera behartu zituzten. Hauteskundeak egin eta gobernu berriak Britainia Handiarekin eta Herbehereekin zuten zorra ordaintzeko lege proposamen hau egin zuen: Islandiako familiek 3.500 milioi euro ordaindu beharko zituzketen ondorengo 15 urteotan, %5,5eko interesean. Hori zion legea onartu edo ez erabakitze erreferenduma egitea lortu zuten 2009ko abenduan eta ezezkoa erabaki zuten.

Ondoren, akordio hobea lortu zuen Gobernuak, %3ko interes tasa eta 37 urtetan ordaintzeko aukerarekin. Akordio hau onartzeko 2011ko apirilean egindako bigarren erreferendumean, atzera bota zuten berriro. Garbi adierazi dute ez daudela prest bankuen gehiegikeriak ordaintzeko, eta, gainera, finantzari eta politikari arduradunak auzipetu dituzte.

Era berean, hiritarren ekimenez, 31 lagunez osaturiko Batzorde Nazional bat sortu dute, lehenaldiko akatsak saihestuko dituen Konstituzio berri bat diseinatu eta eskualde desberdinetako batzordeetan eztabaidatu ondoren Parlamentuan proposamen gisa aurkezteko. Bide batez, aipatu nahi nuke emakumeak direla planteamendu honen gidari. Mereziko luke zergatia jakitea.

Islandiarrek, finantzari eta politikarien ustez derrigorrez hartu beharreko erabakien aurrean, alternatiba berriak sortu dituzte, krisiaren arduradunak epaitu eta lehengo arpilatzeak gerta ez daitezten Konstituzio berri bat egiten ari dira.

Zergatik ez gaituzte honetaz informatzen? Zeren beldur dira?

**"Ez daude prest bankuen gehiegikeriak ordaintzeko"**

## USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

## Pazientzia bako gizartea

**B**este edozein arratsalde da Otolara kalean. Ia egunero gertatzen dena ere gertatu da gaur: gidari batek, zorionekoa bera, leku bat aurkitu du autoa aparkatzeko. Oraingo, behintzat, hori ez da albiste. Baina behar direnak baino maniobra gehiago egin ditu, antza, beste gidari bat erotuta hasi da eta klaxona jo eta jo. Klaxona jotzeko modu hori ez da normala; erredakzioa ere asaldatu du zarata karrankari horrek. Eta atzeko gidariaren haserrea aurrekoari aparkatzen uzteko pazientziarik ezak eragin duela ikusita, pena sentitu dut. Pena, bizitza bi egun direla jakin arren, azkarregi bizitzen tematuta bizi garelako; gurea pazientzia bako gizartea delako.

## KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu Diada egunean Bartzelonan egin zen manifestazio jendetsua?



**GARAZI MUJIKA**  
ARRASATE

"Oso ondo egin dute kalera irtetzen. Herria mugitu egin da eta guretzako ere eredu bat izan beharko litzateke".



**LIERNI ETXEBARRIA**  
ARRASATE

"Geroz eta jende gehiago, orduan eta ozenago entzuten dira oihuak. Poztu egin nintzen Bartzelonakoa ikusteaz".



**JON EGIDON**  
ARRASATE

"Ikusgarria. Krisiak eragin du agian, baina atzetik zerbait gehiago dago, kataluniarren aldetik borondate zehatz bat".



**ANIXE URIBARREN**  
ARRASATE

"Beraien eskubideengatik irten dira kalera eta primerakoa da. Oihartzuna handia eduki du gainera".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Visca Foruak! (I)

Patxi Larrion

argia.com/ez-gara-hutsaren-hurrengoak

-Ez nauk sobera baikor.

Diadaren hondarreko egunean elkartu gara. Sanferminen aurretik egin genuen azken hitzordua, udaren puskarik handiena herrian ematen baitu Leonciok. Inoiz aitortu didanez tarteka denboraldi luzea behar du igaro sorterrian, terapia moduko bat da, pagadiak eta olibadiak ia elkarren ondoan, egun sorgoritsua suertatzen bada mendiaren freskotasuna bertatik bertara eta arratsaldearen akaberan ezin mauka motzean ibili.

Manifestazioa izan dugu hizpide, agerraldi erraldoiaren ondorengo adierazpenei zolda kentzen ahalegindu gara. CIUk jokatu duen papera eta gertaerak Hego Euskal Herrian izan ditzazkeen irakurketa eta ondorioak izan dira Leoncioren gogoetaren ardatzak. Hau guzti hau ilustratze aldera, sorterriko notiziak berritu dizkit. Betiko iltzaturik geratu zaio Leonciori 2011ko abuztuan sorterriko elkartearen aditu zuen elkarrizketa.

Lau gazte ari dira ordu txikietan barraren bueltan.

Arantza, herrian jaio eta bertan bizi dena, Amaia, Bergaran sortua eta udaro amaren herrira datorrena, Mikel, Goierriin hazia, baina adinez nagusia denetik aitaren sortetxera bizitzera etorria eta Bartzelonako Xavi, ama Bilbon sorturiko nafarra, aita Teruelgoa, bera katalana. Zaharrenak 23 urte bete berri ditu, batek unibertsitatea bukatu berri du, bik hurbil ikusten dute karreraren amaiera, azkenak festaren bat salbu ez du inoiz campus bat zapaldu. [...]

Jaiak amaitu berri dira otsaileko astearte batean hogeitahamar biztanle ez dituen herrian. Pozik dira gazteak, estrainezko jaiak antolatzeke ardura hartu eta batzuen amorrurako oso ongi joan baita dena. [...]

Uda ondorengo asmoetaz ari direla Xaviri luzatu dio galdera Arantzak

-Ta orain, ikasten segitu behar al duk?

-Ez dinat uste, hona etorri aurretik dozena bat curriculum bota ditinat, baina.

-Badaukak hemen saiatzea.

-Tira, ez dinat bazterten.

Egun gazteek lan merkaturaren duten aukera urriez jardun dira, eta egungo koiunturaz ari direla Xavik

Katalunako eta Nafarroako egoera ekonomikoak alderatu ditu, eta alderatzean Estatuarekiko harreman ekonomikoaren ezberdina azpimarratu.

-Hor duzue zuek hitzarmena. Zuek ez duzue guk Espainiarekin dugun aferra. Barraren bueltan eseri garetik milaka euro atera dira Kataluniatik beste komunitate automot batzuen defizita berdintzeko.

Xavi ez da inprobisatzen ari, adibide zehatz eta orokorrak tartekatzen ditu, ezagun du ez dela arrazoibide hau pausatzen duen lehendabiziko aldia. Barran diren gainerakoek arretaz jarraitu dute Xaviren ikasgai magistrala. Leonciok ez du ezer berririk entzun, baina gazte baten ahotik horren argudio argiak entzun izanak kezkatu du.

-Kezkatu, zer dela eta kezkatu hintzen. Galde egin diot nik

-Ziur nauk Nafarroa eta Erkidegoan bizi diren gainerako hirurak ez zirela inoiz ezberdintasun horretaz jabetu.

Geroxeago esan didanez Xavi ez da aurrean amaren sorterrira joan. Nonbait aski lanpeturik zebilen ANCN.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Ubane Madera

**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna**  
Xabier Urtzelai  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Otolara Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# “Trending topic” diseinua prezio onean

**irteera-  
eskaintza**  
Irailaren 30erarte  
**LUZAEZINA**

Tuit sofa  
lehen ~~1.203 €~~  
irteera prezioa



**999€**



berria

Tuit Sofa 3plaza + chaiselonguea. Eserleku lerragarriak, beso zabalak eta buru mugikorrarekin. Mixtura 28 koloredun ehunean tapizatua. Neurria 287zm. Prezioa 999 €. Adierazitako neurri eta ehunarentzat balio duen promozioa. Bez-a barne.

**tuit #sofa**

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com) jarrai gaitzazu  

**KIBUC** Gure Ametsa

[gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 15 16 81

**KIBUC**

Azkenean gure etxean

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**David Arregi** | Euskal Herritarrok alderdiko zinegotzia (1999-2003)

- ▶ Kultura zinegotzia izan zen, bere gustuko alorra
- ▶ Liburutegia lekuz aldatu eta modernizatu zuten
- ▶ Edorta Zubizarreta izan zen agintaldian alkate

## "Proiektu esanguratsuena udaletxearen zaharberritzea izan zen, baina hilabete bakarrik egon ginen han"

ARRITXU BARRUSO | ESKORIATZA

Euskal Herritarrok alderdiko zinegotzi izan zen David Arregi eskoriatzarra 1999tik 2003ra. Esperientzia gazi-goza izan zela kontatu digu.

**Udalgintzan aritu zinen lehenengo aldia izan zen?**

Bai. Herri Batasunaren legez kanporatzea zela-eta proposamena egin zidaten. Ondo iruditu zitzaidan eta baiezkoa eman nuen. Eskoriatzaren alde ahal nuen neurrian, behintzat, lan egiteko prest nengoela esan nien.

**Nolako esperientzia izan zen?**

Esperientzia polita, gogorra eta aberasgarria ere bai. Askotan, kanpotik oso erraz kritikatzeko dugu Udalean dauden pertsonen egiten dituzten ekintzak. Baina barruan zaudenean konturatzen zara ez dela kanpotik ematen duen bezain erraza Udaleko jarduna eta bertako proiektuak aurrera ateratzea. Dena dela, esperientzia polita izan zen.

**Aberasgarria izan zela ere esan duzu...**

Bai. Jendearekin beste harreman mota bat izaten duzu eta beste ikuspegi batzuk ere ezagutzen dituzu, eta hori aberasgarria dela uste dut. Nahiz eta, beharbada, ados ez egon, beste ikuspegi batzuk ere badaudela ikusten duzu.

**Nola gogoratzen dituzu 1999ko hauteskundeak?**

Ordura arte EAK alkatetza izan zuen hamabi urtean eta aurretik EAJ egon zen Udalean. Urte askoren ostean ezker abertzaleak alkatetza lortzen zuen lehenengo urtea izan zen. Sorpresa izan zen, ez genuen uste irabaziko genuenik. Bagenekien oso urrun ez ginela egongo, baina irabazterik ez genuen espero. Hori horrela, arduraz hartu genuen agintaldia.

**Nola gelditu zen udalbatza?**

Edorta Zubizarreta izan zen alkate. Ezker abertzaleak bost zinegotzi zituen, EAK bi, EAJk bat, EBk bat, PSE-EEK bat eta Elizateek beste bat.

**Nola gogoratzen dituzu beste alderdiko ordezkariekin harremanak?**

Alkatetza lortu genuenean Udalaren jarduna apur bat aldatzea erabaki genuen, eta pisu handiago eman genien batzordeei. Lau batzorde handi osatu genituen eta bakoitzak bere azpibatzaordeak zituen. Modu horretan, osoko bilkurak nahiko arinak izaten ziren, gai gehienak batzordeetan landuta eta eztabaidatuta eraman genituen osoko bilkurara.

**Kultura zinegotzi izan zinen, ezta?**

Bai. Kultura batzordeburu nintzen eta nere ardurapean zeuden azpi-

batzordeak ziren Kultura, Jaiak eta Kirola.

**Zure gustuko alorra izan zen.**

Bai. Gustura egon nintzen. Udaleko langileek ere lan oso ona egin zuten; gu hasiberri samarrak ginen. Oso gustura egon nintzen.

**Zein izan zen zuen agintaldiko proiektu garrantzitsuena?**

Proiektu dezente atera genituen aurrera, baina nik uste dut adierazgarriena udaletxearen zaharberritzea izan zela. Egoera ekonomikoa beste bat zen, noski. Gure agintaldian udaletxetik kanpo egon ginen, beste lokal txiki batean. Dena dela, udaletxe berria ez genuen ezagutu ere egin, hilabete bakarrik egon ginen han. Kultura arloan, bestetik, liburutegia ere tokiz aldatu genuen, eta modernizatu egin genuen, ordenagailuak ipini eta beste bizitza bat eman genion.

**Udaletxera joaten zaretenean, hortaz, gogora etorriko zaizue zeuek eraberritu zenutela.**

Ni Kultura batzordean nengoen eta ez nengoen obren gainean sartuta, baina, azken finean, batzordeetan-eta asko irteten zen gaia zen. Gaur egun udaletxera joaten garenean pentsatzen dut: "Kontxo! Udaletxe hau guk eraberritu genuen, baina ezin izan genuen erabili".



David Arregi, Eskoriatzako udaletxearen aurreko aldean. | ARRITXU BARRUSO

**Kultura alorrean ze proiektu gogoratzen dituzu?**

Udaletxera iritsi ginenean kultura arloa indartzea erabaki genuen, eta Udaleko Kultura teknikaria lanaldi erditik osora pasatu genuen. Horrekin proiektu gehiago egin ahal izan genituen.

**"Urte askoren ostean ezker abertzaleak irabazten zuen lehen aldia izan zen"**

**"Ez genuen izan gure lanaren jarraipena egiteko aukerarik"**

Esate baterako, formatu txikiko antzerki eta bakarrizketak egiten hasi ginen oso modu xumean, eta gero, unibertsitatearekin adostasunera iritsi ginen eta unibertsitateko aretoan egiten genituen. Gaur egun, oraindik ere hilean behin egiten dira horrelako ekitaldiak eta jendeak parte hartzen du, eta hori poztekoa da. Hain justu ere, horrelako ekimenetatik sortu zen erabilera askotariko aretoaren beharra.

**Udal jarduna jarraitzen duzu gaur egun?**

Egia esan, lehen, jarraitzen nuen, baina udaletxetik pasatu ondoren ez horrenbeste. Ez dakit nola esan, baina gure agintaldiaren bukaera nahiko tristea izan zen eta sentsazio gazi-gozaarekin utzi genuen udaletxea. Ez genuen aukerarik izan gure lanaren jarraipena egiteko. Hori ukatu egin ziguten.



Iturgintza - Berogintza

*Laskurain*

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra



# HERRIAK

ANTZUOLA

## Herritik, herriarentzat

Urriaren 5eko eta 6ko aste bukaeran egingo dute Antzuolako gaztetxearen inaugurazio ofiziala; edozelan ere, abuztua ezker abian dira hainbat ekintza antzuolarrendako

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Gaztetxe berriak atek zabalik izan ditu abuztuan eta herritarrek bertatik bertara ezagutzeko aukera aparta izan dute. "Herriarentzat eta gazteentzat oso garrantzitsua dela gaztetxea abuztuan zabalik edukitzea ikusi dugu; lanean ibili gineneko martxa hura ez galtzeko, eta guztion artean txanda desberdinak antolatuta, oso txukun eraman dugu irailean ere aurrera", kontatu digute gaztetxe kideek. "Herrian oso harrera ona izan du, izan diren ekintza desberdinetan jende ezberdina agertu da -frontenis txapelketa, puntu ikastaroa, erreka garbitzea...-. Alde horretatik eskerrak eman behar ditugu".

Hala ere, inaugurazio ekitaldi ofiziala urriko lehen asteburuan egingo dute. "Inaugurazioarekin buru-belarri lanean ari gara une honetan. Antolatu dugun lantalde bakoitzak bere lanak izango ditu aurrera begira ere. Dena den, herri guztira zabalik daude gaztetxeak zein lantaldeetako ateak", nabarmendu dute.

"Gure filosofia *herritik herriarentzat* hitzek oso ondo islatzen dute; herritar guztientzat ateak zabalik izango ditu beti gaztetxeak, bai antolakuntza zein parte hartze garaian".

Inaugurazioari helduz, urriaren 5eko eta 6rako egitaraua ia prest dutela jakinarazi digute: "Urriaren 5erako etxafuegoa, pintxo-poteoa eta kontzertu akustikoa antolatu ditugu; urriaren 6an, aldiz, gastronomia lehiaketa, poteoa, herri bazkaria, umeentzako puzgarriak, herri kirolak, elektro-txaranga, luncha eta kontzertuak lotzen gabiltza". Aste horretan zehar ere beste ekintza batzuk antolatzekotan dabiltzala esan digute; tartean, dokumental emanaldi bat.

Lanerako taldeak

Guztira, sei lantalde daude lanean: Mantenimendu, Komunikazio, Elkartruke, Parte Hartze eta Ikus-Entzunezko taldeak. Bakoitzak lan desberdinak egingo ditu, eta talde txiki horietako erabakiak koordinazio bileran landuko dituzte. Koordinazio bilera horretan lantalde bakoitzeko kide bat elkartuko da. Horrez gain, batzarrak ere egongo da. Herri guztia-ri ateak zabaltzeko asmoz, edonork -gazte, heldu zein zahar- izan eta ekar ditzake ideiak lantzeko. Baina talde bakoitzaren eginkizun zehatza zein izango da? Taldeki- de bakoitzeko kideei galdetu diegu:

"Mantenimendu taldea gaztetxean falta daitekeenaz edota apurtu dena konpontzeaz arduratuko da; materiala, betiere, ikuspuntu ekologiko zein ekonomikotik begiratutakoa izango da", nabarmendu nahi izan digute taldeko arduradunek.

"Komunikazio taldeak bere gain izango ditu komunikazio iturri guztien ardura eta erabilera. Lantalde guztiek euren ekintzen inguruko informazio guztia helarazi beharko diete. Ekintzen egutegia egiteaz ere arduratuko dira", diote.

"Elkartruke taldean, ekintzak lanketa sozialerako gaiekin zein hortik kanpokoekin egingo dira. Formakuntza praktikoa emango da -dakigunetik erakutsi eta ikasi-. Ekintza proposamenak asanbladako zein lantaldeetako edozeini esanda burutu ahaliko dira", azpimarratu digute elkartruke- rako lantaldekoek. "Parte Hartzea bultzatu nahi dugu: herritik herriarentzat. Herriko adin desberdinetako jendearentzako ekintzak egin gura ditugu. Erregulartasun bat mantenduz, "sorpresak faktorea" ahaztu gabe.



Antzuolako gaztetxeak abuztuan ireki zituen ateak; lan taldeak udazkenerako egitaraua prest du. | ANTZUOLAKO GAZTETXEA

Guretzako ekintzak antolatu behar ditugu, ezagutzeko, jolas egiteko...", nabarmendu digute Parte Hartze taldeko arduradunek.

"Ikus-entzunezko taldea kontzertuak, dokumentalak, antzerkiak eta abar antolatzeaz arduratuko da. Jendea etortzeko eta guretzako erakargarriak diren ekintzak burutzeko helburuarekin. Diruaren kudeaketa koordinazio taldean erabakiko da".

Hala, diru-zaintza taldea ere izango duela Antzuolako gaztetxeak gaineratu digute. Haien ardura izango da fakturak gorde, ordainketak egin, diru-sarrerak zenbatzea, urteroko balantzea,

ekintza gastuen aurreikuspena egitea, etab.

"Herriari eskerrak eman nahi dizkiogu eman duen laguntzaga-


tik, eta orotariko jendea animatu nahi dugu herritik herriarentzat sortu den proiektu polit honetan parte hartzeko".



Antzuolako gaztetxeako pankarta egiten. | ANTZUOLAKO GAZTETXEA



Gazteak mahaiaren bueltan. | ANTZUOLAKO GAZTETXEA



Sukaldea irekita dago erabili gura dutenendako. | ANTZUOLAKO GAZTETXEA

### Sukaldea erabiltzeko aukera dago

Uste baino denbora luzeagoa iraun du, baina oso gustura daude gaztetxearekin. "Aukera desberdinak eduki ditugun arren, lokalaren aprobeitamentu egokia egin dugulakoan gaude, herri guztia eskerrak eman behar dizkiogu, emandako laguntzagatik", diote. "Oraingoan, sukaldea irekia da, betiere tresnak ongi zainduz gero. Sukalde txikia denez, bertan jango duten pertsonen elkarlana nahi dugu, guztion arteko ezagutza bultzatuta".



Gazta, fruta eta barazki lehiaketetako irabazleak. | T.M.



40 Martin eta Martina inguru bildu ziren atzo. | J.C.



Musika bandak plazan jotzen zuenez, bozgorailuetatik entzun behar izan dute aurten danbor-jotzaileek musika. Horrek baina, ez d



Bi Martin: diputatua eta umea. | M.A.E.



Azokan, produktuak mila. | J.C.



Dantza Solte Txapelketan parte hartu zuten hamar bikoteetako bat. | J.C.



Su artifizialak izan dira aurtengo sorpresa. | J.C.

## BERGARA

# Etorri eta joan, bergararrek ederki aprobetxatu dituzte San Martinak

Helduen danborradako eta Santuaren heriotzaren errepresentazioko berrikuntzek erantzun ona izan dute

TXOMIN MADINA | BERGARA

Besteak beste ekitaldi nagusiak asteburuan izateak eta eguraldi onak lagunduta, jende asko ibili da aurtengo Bergarako San Martinetan. Egubakoitzean eman zitzaizen jaiei hasiera San Martin Agirreri buruzko bideo emanal-

diarekin (ikus 4. orria) eta Moises Aspiazuren omenezko Bikote Nagusiendako 28. Dantza Solte Txapelketarekin. Hamar bikote lehiatu ziren bertan, eta iaz bezala, aurten ere Jon Iburgurenek eta Idoia Besadak osatutako bikotea izan zen garaile.

Zapatu goizean, azokara

Erostera, ikustera edo odoloste zein talo postuetan hamaiketako egitera, zapatu goizeko azokak jende ugari erakarri zuen. Lehiaketei dagokienez, Aiako Jose Luis Odriozolak irabazi zuen gazta onenaren saria. Fruta lehiaketa Antzuo-

lako Kontxita Izagirrentzat izan zen eta barazkiarena, Martuteneko Jose Manuel Zabalegientzat.

Txomingeroen bazkarian, iaz izandako erantzun eskasari buelta eman eta aurreikusitako 160 pertsonak baino gehiago batu ziren.

Ezusteko eta guzti

Helduen danborradan eta San Martin Agirreren heriotzaren errepresentazioan izan zen berrikuntzarik: banda plazan egon zen uneoro, eta errepresentazioan jende gehiagok hartu zuen parte. Jendearen aldetik erantzun ona izan zuten berrikuntzek. Su artifizialak izan ziren errepresentazioaren osteko sorpresa.

Sokamuturrak, bandaren emanaldiak, kanpai-jotzaileen erakustaldiak, Martin eta Martina izenekoen bilkurak eta hurren danborradak borobildu zituzten atzo aurtengo San Martinak.



JOSE LUIS ODRIOZOLA

Pozik zegoen Jose Luis Odriozola gazta lehiaketa irabazita: "Egia esan gazta egiten duena nire anaia da, ez ni, baina ezin zuen etorri eta haren partez etorri naiz. Iaz ere hartu genuen parte, baina orduan ez genuen ezer ere irabazi. Egiten dugun gazta leuna dela esango nuke".



BENITA EPELDE

"Gauza pila bat dago azokan, eta genero ona, gainera. Momentuz ogia erosi dut, baina buelta bat emateko asmoa dut, eta seguru zerbait gehiago erosten dudala".



JON EZPELETA

"Ogia, ezta eta pateaa erosi dut eta barazkiak edo fruta erosteko asmoa ere badut. Eguzkia gogor ari dela jotzen? Badu erremedioa: gerizpea bilatu eta ardotxo bat edan!".



KONTXITA IZAGIRRE

Sagarrak dira jaun eta jabe aurtengo fruta lehiaketako irabazlearen postuan: "Sagarrak eurak ekarri ditugu, baita irasagarra ere. Urteak daramatzagu San Martineko azokara etortzen, baita Bergarako ohiko merkatura ere".



u inongo arazorik eragin eta umore ona izan da nagusi beti bezala | J.A.



Epaileak lanean gazta onena aukeratzeko. | J.C.

ARAMAIO

## Kultur trukaketa Sastiñan

Herriko etorkinak batu eta kulturak ezagutzeko deialdia egin zuten Aramaion, eta kultur arteko ekintzen jardunaldiak izan dira deialdi horren ondorioa. Bideo emanaldiak, mahaingurua eta munduko janarien dastaketak egin dituzte besteak beste, asteburu honetan. Jardunaldietara, Saharako, Cabo Verdeko, Alemaniako zein Andaluziako pertsonak gerturatu dira. Ekimen honen balorazio positiboa egin dute, kultura ezberdinak gerturatzen ditu eta.



LIERNI ALTUNA



JOSETXO ARANTZABAL

GATZAGA

## Erretiratu eguna, kartak eta kantuan

Leintz Gatzagako erretiratuek gustura jan zuten zapatuan Eusebio Villarrek gertatutako bazkaria. Erretiratuaren Eguna egin zuten egun horretan, kultur etxean batu ziren bazkaria azaldutako 28 lagunak. Zinegotzi eta bolondresak egon ziren jana zerbitzatzen. Bazkal ostean, karta-jokoan, batez ere briska eta musean, eta kantuan ibili ziren, afaltzeko ordua heldu arte.



Umeen danborradak, alaitasuna eman zion atzoko arratsaldeari. | J.C.



Aitzol Mujikarena izan da aurten San Martin Agirre izateko ardura. | J.C.



JON ZABALETA

ARRASATE

## Jaiak Erguin eta Uribarri auzoetan

Egubakoitz arratsaldean suzirik eman zioten hasiera jaiari umeentzako jolasekin. Gauean rock doinuak nagusitu ziren; *Dirty Brothers*, *Bitter Honey* eta *Screamers&Sinners* taldeekin. Zapatu goizean, umeen txanda izan zen zezen, poni eta puzgarriekin; eta, igandean, jaiari amaiera ona emateko, Lore Gazteak taldearen ekitaldia eta ipuin kontalaria izan zituzten.



Guztira hamabi dantza talde gerturatu ziren Oñatira. | Z.V.D.M.

OÑATI

## Oñati, 500 haur dantzari inguruk alaitutako herria

Euskal doinu eta dantzen bidez ongi egiten dakitena erakustera animatu zituen alkate txikiak

ZURIÑE V.D.M. | OÑATI

Haurren Eguna urtero jende mordoak erakartzen du, eta aurten ere ez da salbuespena izan. Bostehun neska-mutil inguruk herriko kaleak alaitu zituzten domekan beraien dantzekin. Iaz ez bezala, gainera, eguzkia lagun izan dute.

Hamabi herri ezberdinetatik gerturatu ziren dantzariak Oñatiko hitzordura. Gernika, Sora-

luze, Legazpi, Arrasate, Oñati... Aurkezpen-paseoa egin zuten plazako frontoiraino. Hamaiketako egin, alkate txikiaren hitzaldia entzun eta herriko kale ezberdinak alaitu zituzten ondoren. Familia ezberdinetan bazkalduta, arratsaldean ez ziren siestan geratu; berriz ere dantza egiteko ordua iritsi zitzaion, eta dantzari finak direla erakutsi zieten plazara gerturatutakoei.

ELENE  
OÑATIKO  
DANTZARIA

"Jende pila bat elkartu gara gaur dantza egiteko Oñatin. Dantza desberdinak egingo ditugu, adibidez, aurrekoa edota arku dantza".

MARKEL ETA  
JULEN  
SORALUZOKO  
DANTZARIAK

"Urrats dantza taldekoak gara eta banakoa, urdai dantza, makil-txiki eta beste batzuk egingo ditugu. Baina gehien gustatzen zaiguna, bazkaltzera joatea da".

ELENE  
GERNIKAKO  
DANTZARIA

"Elai-Alai taldekoa naiz eta Gernikatik etorri gara sardina-saltzaile jantzita Oñatira. Gure asmoa ongi pasatzea da eta horretarako etorri gara".



Triki-poteoaren ondoren, bazkaltzeko elkartu ziren. | JULIO CALLEJA

OÑATI

## Trikitizaleek egun borobila igaro zuten, poteo, bazkari, erromeria eta guzti

Z.V.D.M. | OÑATI

Laugarren urtez ospatu zuten zapatuan Lizargarate Trikitizale Elkartearen eguna Oñatin. Antolatzaileen esanetan, urte urte geroz eta jende gehiago erakartzen duen jaia da, gainera.

Trikiti doinuaz, festa

Elkartu eta triki-poteoa eginez hasi zuten eguna. Bazkalordura arte iraun zuen eta segidan, 60 bat lagunek bazkaria egin

zuten; patatak errioxar erara, untzia eta fruta izan zen eguneko menua. Umeek ere beraien-tzako antolatutako tailerrekin gozatu zuten, bai aurpegiak margotuz, tirolinan jaitziz edota traktorean herritik itzulia eginez. Erromeriaren txanda izan zen ondoren, afal aurretik eta baita ostean ere; atsedendian, txosnan prestatutako ogitartekoekin indarrak berreskuratu zituzten jarraitzeko.



OÑATI

JULIO CALLEJA

## Beste era batera kontsumituz

Tailerrak, hitzaldiak, eskulanak, azoka... Ohiko kontsumo moduetatik haratago joan gaitezkeela gogorarazi zigun modu horretan EkoBira deituriko programak zapatuan Oñatiko plazan. Goiz eta arratsalde zuten ugari gerturatu zen eta oinetakoak muntatzen ikasi, amatasun eta kontsumo arduratsuari buruzko pixka bat gehiago ezagutu eta erroskila ederrak nola prestatu ikasi zuten, adibidez.



ARRASATE

Z.V.D.M.

## Eskaintzak aprobetxatuz, Merkemerkauan

Goizean goizetik jendea Arrasateko kaleetan gora eta behera ibili zen zapatuan egindako Merkemerkauko eskaintzak aprobetxatu guran. Trikitilarien doinuek kaleak alaitu bitartean, erosleek saltoki ezberdinak kuxkuxeatzen zituzten. Herriko merkatariei bultzada emateko ekimenak, erosleei armaruak berritzeko aukera ematen die, eta zortzigarren edizio honetan ere, ziur batek baino gehiagok aprobetxatu duela momentua.

ARETXABALETA

## Urbaltz Eguna rockeroa ospatu zuten zapatuan

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Azken urteetan moduan, Urbaltz Eguna ospatu zuten Aretxabaletan zapatuan. Elkarteko bazkideek antolatutako egitarauari primeran erantzun zioten bertaratutako lagunak.

Lehenik eta behin, Ipar Euskal Herriatik Aretxabaletaraino giroa alaitzera gerturatu zen

Kuxkuxtu Txarangarekin kalejira animatua egin zuten herritarrek. Kantu ezagunekin dantza egin eta abestu ostean, 80 lagun inguruk majo bazkaldu zuten Mitarte plazan 14:30ean hasita; gula entsalada, haragi gisatua, eta goxua izan zuten mahai gainean. Eguraldia lagun, umorez igaro zuten bazkalordua.

Bazkaloste rockeroa

Arratsalde partean kontzertuen ordua izan zen, eta rock doinuek astindu zuten orduan Mitarte; Dirty Brothers, No Hope eta Degenerados taldeak igo ziren taula gainera, besteen artean.

Ez zen hor amaitu aurtengo Urbaltz Eguna eta antolatzaileek egitarauari azken ukitua eman guran, disko jartzaile baten laguntza eduki zuten.

Modu horretan, DJ Elviscaïnoren eskutik atzoko eta gaurko rock doinuak entzun ahal izan ziren Aretxabaletan.



80 lagun inguru elkartu ziren Mitarte Plazan egindako bazkarian. | JULIO CALLEJA



Kaleei ematen zaien erabileraren gaineko hitzaldia dago gaur Kulturaten, haurren ikuspuntua kontuan hartuz. | J.B.

## Mugikortasun Astea gaur hasita, beste era batera mugitu gaitezten

Gidatze iraunkorraren ikastaroan izena emateko etzi da azken eguna, BAZen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Autoaren erabilera murriztu eta beste era batera mugitzea posible dela gogora ekartzeko Mugikortasun Astea hasiko da gaur. Udal gobernuak, legegaldi berria hasi zenetik, Mugikortasun Plana jarri

zuen martxan. Plan horren barruan daude, besteak beste, alde zaharreko kaleetan oinezkoen lehen-tasuna ematea eta bidegorri sarea hobetzea. Bada, herri barruan autoa hartu barik mugitzeko kontzientziatzea da gaur hasten den

ekimenaren helburuetako bat. Egitarauaren barruan ez dago nobedade handirik; Udaleko Ingurumen Sailak nabarmendu gura izan ditu Marta Romanek gaur emango duen hitzaldia eta zapatuko Birzikleta Azoka –bihar eta

egunean materiala biltzen jarraituko dute oraindik, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, Udal azokan-. Era berean, zaturako ere antolatu duten *Gidatze eraginkorra, gidatze ekonomikoa* deritzon ikastaroa oso interesgarria izango da, antolatzaileen arabera. Besteak beste, erregaiaren kontsumoa %20 gutxitzeko gidatzeko erarik eraginkorrenak ikasi ahalko dira. Plazak mugatuak dira eta izena eman behar da hilaren 19a baino lehen, BAZen. Bestalde, urbanoa erabiltzea doakoa izango da.

### Merkataritza Berdearen Astea

Mugikortasun Astearekin batera dator aurten ere Ibai Artek antolatzen duen Merkatari-tza Berdearen Astea. Aurtengoa laugarren edizioa izango da eta gaur hasi eta agortu arte, elkarteko kide diren komertzioetan poltsa berbera erabilgarriak banatuko dituzte.

Bestalde, irailaren 18an eta 20an *Paketeria komertzial iraunkorra* izenburu duen ikastaroa antolatu dute, merkatari-egitura. 14:30etik 16:30era izango da, Mankomunitateko ikasgeletan. Era berean, Ibai Artekoek dei egin dute "erakusleihen apainketa iraunkorra" egitera.

### EKITALDI AIPAGARRIENAK

#### HILAK 17, ASTELEHENA

**18:30** *Eskola Bidea* hitzaldia, Marta Romanen eskutik. Kulturateko areto nagusian.

#### HILAK 22, ZAPATUA

**09:30-13:30** *Gidatze eraginkorra, gidatze ekonomikoa* ikastaroa. Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

**11:00-15:00** Birzikleta azoka. Seber Altube plazan.

**11:00-14:00** Segway eta Trikke ibilgailuak. Biterin.

**11:00-15:00** *Mugitzeko beste era bat* erakusketa, emisio txikiko ibilgailuak. Biteri plazan.

#### HILAK 23, DOMEKA

**11:00** Bizikleta bira Arrasatetik Eskoriatzara. Irteera Seber Altube plazatik.

## Gazte txokoek zein Ludotekek asteen irekiko dituzte ateak

J.B. | ARRASATE

Asteon ekingo diote ikasturte berriari Txatxilipurdiren gazte txokoek eta ludotekek. San Andres, Musakola eta Erguingo gazte txokoetako ateak bihar zabalduko dituzte (17:00-20:00) eta Erdiguneko gazte txokoa, berriz, hilaren 21ean irekiko da (18:00). Erdiguneko egubakoitz, zapatu eta domeketan egongo da zabalik aurten ere, aste bukareta hutsunea betetzea helburu. Hezitzaile taldea gogotsu dator: "Ilusioz ekingo diogu lanari, gazteekin batera eta gazteengandik gauza berriak ikasteko gogoz, auzoak biziberritzeko asmoz, gure lan hezitzailean sinisten dugulako".

### Ate irekiak ludoteketan

Ludotekak ere gertu daude ikasturte berrirako. Gaur irekiko dituzte ateak Usaetxe, Okendo eta Santa Marinako egoitzek. Lehen bi asteetan, irailaren 28ra arte, 3 eta 12 urte bitarteko haurrak bazkide izan gabe ludoteketan sartzeko aukera izango dute; ludotekak nolakoak diren ezagutu eta bertako eskaintzaz gozatzeko. Bazkide egin gura dutenek 30 euro ordaindu beharko dute ikasturte osorako, iaz moduan. Gogotsu daude ikasturte berrirako: "Proiektu berria esku artean dugularik, haurren beharrei erantzun eta kaleak biziberritzera gatoz!".



JOKIN BEREZIARTUA

## 11.000 euro Santi Gonzalezendako

San Andres auzoko Santi Gonzalez izan da Vueltaren Monteko porranko protagonista nagusia. Lehen saria irabazi du –ia 8.000 euro– eta baita hirugarren zein zazpigarren saria ere: "Oso pozik jaso dut albistea. Zer egingo dudan irabazitako diruarekin? Hasteko, lagunekin afori eder bat egingo dut eta beste zati bat emaztearekin batera bidai bat egiteko erabilik dut". 659 parte hartzaile izan ditu aurten porrak, iaz baino 50 bat gutxiago. Hala ere, antolatzaileak pozik daude parte hartzearekin.

## Lapurrak sartu dira gaztetxean, aurten hirugarren aldiz

Joan den astean izan zen azken aldia. Hainbat ate behartu ostean barrura sartzea lortu zuten eta AGAKOren arabera, ez zuten balio handiko ezer eraman: "Atzo [eguna] arratsaldean egin genuen inbentarioan alkohol botila batzuk falta zirela konturatu ginen, baina ez besterik. Hori bai, ateetan batez ere, kalte handiak eragin dituzte". Hirugarren aldia da sartzen direna, izan ere, uztailean eta abuztuan ere sartu ziren. AGAKOK gogor salatu du ekintza: "Penagarria iruditzen zaigu herriarendako lan egiten duen gune bati halako erasoak egitea".



Ludotekariak Monterronen, ikasturte berrirako gogotsu. | TXATXILIPURDI



XABIER URTZELAI

## Patxi Lopezek inauguratu zuen sozialisten egoitza

Jendetza batu zen egubakoitz arratsaldean sozialistek Martxoaren 8 kalean zabaldu duten taberna eta jatetxea inauguratzeko, egoitzarekin batera. Lehendakariaren bisita ikusmina sorrarazi zuen –argazkian herritar batekin; ez zen bakarrik etorri, PSEko hainbat ordezkari izan zituen ondoan. Mitin politikoaren ostean ireki zituzten tabernako ateak, eta luntxa eman zuten; Arrasateko sozialisten idazkari Paco Gartzia adierazi zuen Arrasateko "Askatasunaren egoitza", izango dela.

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dirulaguntza horiek gizarte zerbitzuetan diharduten elkar- teek zein gobernuz kanpoko erakundeek eska ditzakete. Eus- kara arloko zenbait laguntza eskatzeko epea ere zabalik dago.

Gizarte zerbitzuen alorreko elkarteei dagokienez, Udalak banatuko duen laguntza herrian garatzen diren jarduera zehatzak eta denboran jarraian finantzaz- zeko erabiliko dira.

Guztira, 18.000 euro bideratu- tuko dira, eta, besteak beste, kontuan hartuko da jarduerak bazterketa arazoak dituztenei, minusbaliatuei, hirugarren adi- nekoei eta zerbitzu sozialen beha- rra dutenei zuzenduta egotea, genero-berdintasuna bultzatzea, herritarren arteko elkartasuna sustatzea eta antolatutako jar- dueretan udalerriko bizilagunen parte-hartzea bultzatzea.

Dirulaguntza horiek eskatze- ko epea zabalik dago dagoeneko eta irailaren 29an amaituko da. Interesatuak dirulaguntzak eska- tzeko oinarriak eskura dituzte Udalaren webgunean [www.bergara.net](http://www.bergara.net) eta Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailean.

# Zenbait dirulaguntza eskatzeko epea zabaldu du Udalak hilaren 29ra arte

- ▶ GKE eta gizarte zerbitzuetan dihardutenendako da
- ▶ Euskara arloko zenbait laguntza ere eska daitezke

## GKEendako 52.600 euro

Kopuru hori bideratu du Udalak GKEentzat eta bi multzotan bana- tuko da: %95 garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagu- nen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzeko helbu- rua duten programen ekintzak laguntzera zuzenduko da. Gaine- rako %5a ekintza horiekiko Ber- garako herritarren interesa sor- tzeke egingo diren ekintzak laguntzako erabiliko da.

Eskariak egiteko epea iraila- ren 29ra arte dago zabalik. Inte- resatuak dirulaguntzak eskatze- ko oinarriak eskura dituzte Ber- garako Udaleko webgunean [www.bergara.net](http://www.bergara.net) eta Udaleko Gizarte Zerbitzu sailean.

## Euskara arlorako laguntzak

Euskara arloko zenbait laguntza ere eska daitezke. Hiru laguntza mota emango ditu Udalak: bate- tik, Bergarako Udal Euskaltegitik

DATUA
<b>70</b>
EURO
Gizarte zerbitzuetan diharduten taldeendako 18.000 euro bideratu dituzte; GKEendako, 52.600 euro.

kanpo euskara ikasten dutenen- tzako dirulaguntza; bestetik, Udako Euskal Unibertsitatean (UEUn) parte hartzen dutenen- tzako dirulaguntza; eta hiruga- rrenik, Idazle Eskolak antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzen duten bergararren- tzako dirulaguntza.

Dirulaguntza horiei buruzko informazio zehatza Bergarako Udalaren webgunean dago: <http://www.bergara.net/Udala/Antolaketak/euskara/zerbitzuak>. Zehaz- tasunak arautegiaren agirian daude, baina hor agertzen ez den informazio osagarriren bat nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura -943 77 91 66 zenbaki- ra- dei daiteke.

Udalak 2011-2012 ikasturtean edota 2012ko udan egindako ikas- taroengatik dirulaguntza eskae- rak aurkezteko epea irailaren 15ean amaitu zen.

Bestalde, Euskara Zerbitzuetik gogora ekarri dute Udalaren 2013- ko egutegirako argazki lehiaketan parte hartzeko epea hilaren 25ean bukatuko dela. Aurtengo gaia antzinako ohiturak, sineskerak, antzinako jolasak, lanak, tresnak... dira; herrian presentzia izan dute- nak edo dutenak.

# San Martzialgo zelaiak zaintzeko arautegia egingo du Udalak

Erromeria egiten den bakoitzean eragiten diren kalteak ekidin nahi dituzte

M.B. | BERGARA

Udala kezkatuta dago uztaileko San Martzialgo erromeria egiten den bakoitzean berdegunean eragiten diren kalteekin, eta, horre- gatik, hura zaintzeko arautegia egingo du.

Aurtengo uztailaren 1eko San Martzialgo erromerian berdegu- neak jasandako kalteak izan dira Udala neurriak hartzera eraman dutenak.

Neurri horiek arautegi batean jasoko dituzte eta San Martzial- go berdegunean egin ahal izango direnak eta ezingo direnak egin

zehatz-mehatz jasoko ditu, San Martzialgo berdegunea babeste- ko asmoz, *Piti* Madariaga Gober- nazio batzordeburuak azalduetako moduan.

## "Urteroko kontua"

Berdegunean eragiten diren kal- teak "urteroko kontua" diren arren, aurren bi gazte koadrilak egindakoa izan da urak gainezka egiteko falta zena. Magalxo bati zatia kendu zioten bazkaritarako mahaia jartzeko. Erromeria aurretik gertatu zen hori eta gaz- teak identifikatu egin zituzten.

Egindako kalteak konpontzea eta zigor motaren bat ezartzea zen hasierako asmoa, baina zigorra atzera botatzea erabaki zuten udal arduradunek, pertsona hel- duz osatutako zenbait koadrilak ere berdegunean kalteak eragin zituztela jabetuta -zuhaitzen arra- mak motozerrarekin moztu, zorua lautu porlana erabilita, sua egin...-. Hori horrela, gazteak bakarrik zigortzea justua ez litzate- keela izango erabaki zuten, baina bai "ezinbestekoa" zela berdegunea babesteko neurriak hartzea.



Piti Madariaga, txikizietako bat erakusten. | M.B.

Udaleko Obra eta Zerbitzuen Departamentuak garatuko du arautegi hori eta erromeriarako ez ezik, urte osoan egongo da indarrean.

Prest dagoenean edukiaren berri emango diete udal orde- z-

kariak herritarrei, eta inguru- mena zaintzen ez dutenei isunak ezarriko zaizkiela ere aurreratu du Madariagak: "Horretarako egingo da arautegia. Arautegia errespetatzen ez duenak isuna jasoko du".

# Kirol argazkien lehiaketako baldintzak kaleratu dituzte

Interesa duen edozein herritarrek har dezake parte eta lanak aurkezteko epemuga urriaren 3a da

M.B. | BERGARA

Udalak eta Arizondo argazki tal- deak kirol argazki lehiaketa dute; 22. aldia izango du.

Parte hartzeko baldintzei dagokienez, Euskadin bizi den edonork har dezake parte. Lehi-aketaren gaia kirola da eta lanak zuri-beltzean zein koloretan egin daitezke. Laborategiko edozein teknika prozedura ere onartuko da.

Mota bakoitzeko lau lan aur- kez daitezke, 40x50 cm-ko kartu- linan. Argazki paperaren tamai-

na eta argazkiko irudia ere nor- berak erabaki ditzake.

Lanen atzeko aldean, titulua, egilearen izen-abizenak, bizilekua, telefono zenbakia, posta elektro- niko eta, hala bada, parte hartzen duen argazki taldearen izena adierazi beharko dira.

## Urriaren 3a da azken eguna

Lanak Bergarako udaletxera eraman edo bidali beharko dira, Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza, 20570), urriaren 3a baino lehenago.

Erabakia urriaren 6an eman- go dute aditzera eta lau sari banatuko dira: lehen sariak 180 euro eta garaikurra eroango ditu; bigarrenak, 15 euro eta garaikurra; hirugarrenak, 120 euro eta garaikurra; eta herri- ko onenak, 90 euro eta garai- kurra. Garaikurrari dagokionez, Santi Arrietaren lanak izango dira. Sari banaketa ekitaldia urriaren 19an egingo dute, 20:00etan, Aroztegi aretoan. Lan sarituak antolatzaileen eskue- tan geratuko dira eta argitara- tu ahal izango dituzte egilearen izena jarrita.

Bestalde, aurkeztutako argaz- kien artean aukeratutakoak Aroz- tegi aretoan ikusgai egongo dira urriaren 11tik 28ra bitartean.

Argibide gehiago jasotzeko 943 76 30 90 telefono zenbakira dei daiteke (Benito).

# Txiki-txokoak zabalduko dituzte gaur, astelehena

Gaur, astelehena, zabalduko ditu Udalak Martoko eta Zaba- lotegi auzoetako txiki-txokoak. Gurasoei eta umei zuzendu- tako zerbitzu hori astelehe- netik domekara egongo da zabalik, arratsalde, 16:30etik 19:30era.

Duela bi urte jarri zuen martxan Udalak zerbitzu hori. Zabalotegikoak ireki zuten lehenengo, eta gero Martoko auzokoa, bietan ala bietan, eskola zaharrak egokituta.

Zerbitzu horrekin, seme -alaba txikitxoak dituzten gurasoei batik bat eguraldi txarra egiten duen sasoieta- rako jolas egiteko gunea eskai- ni nahi izan die Udalak.

# Alzheimer gaitza duten gaixoak nola zaindu erakusiko dute Uneden

*Alzheimer gaitza dutenentzat zaintza berezia* izeneko doako ikastaroa antolatu dute Kutxa- zabal Debak eta Unedek elkar- lanean.

Urriaren 10ean hasiko da eta 100 orduko izango da. Esko- lak martitzenetan, eguaztenetan eta eguenetan izango dira, Ber- garako Uneden, eta langabezia- dauudenendako da.

Kutxaren Gizarte-Ekintzak Bergarako Unedekin batera mendekotasuna duten perso- nak zaintzen dituztenen zer- bitzura jarri duen baliabidea da Kutxazabal Deba. Gizarte laguntzaren arloan presta- kuntza ematea da haren hel- burua.



# Herriko puntu beltzak aztertuko dituzte genero berdintasunaren aldetik

Emakumeek eguneroko bizitza eroso egin ahal izatea oztopatzen duten puntuak ezagutzea da helburua

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udalak herriko puntu beltzak aztertuko ditu; puntu beltzak genero berdintasunaren ikuspuntutik. 2010ean onartu zen Berdintasun Plana eta ordutik hainbat arlotan ari dira lanean. Plan horren barruan, orain, herriko puntu beltzen azterketa egingo dute.

"Herrian ibiltzeko genero ikuspegitik zailtasunak erakusten dituzten puntuak detektatzea izango litzateke helburua. Normalean puntu beltzak segurtasun faltarekin, arriskuarekin, iluntasunarekin edo gauez ibiltzeko eragin dezaketen beldurrarekin lotzen ditugu, baina kasu honetan kontua haratago doa. Puntu beltzak lirateke emakumeek eguneroko bizitza aurrera eraman ahal izateko zailtasunak ematen dituzten guneak", azaldu du Prebentzio teknikari Arantzazu Loidik.

## Irigarritasunaren garrantzia

Udaleko Gizarte Zerbitzuek azaldu dute oraindik ere desberdintasun handia dagoela emakume eta gizonezkoek betetzen dituzten zereginen artean eta emakumeek lan erreproduktiboan eta zaintzan pisu handia daukatela. Zeregin horietan, esaterako, irigarritasunak eragin handia dauka: "Askotan, umeak eta pertsona nagusiak zaintzen dituzte, eta euren lana egiteko oztopoak dituzten puntuak egon daitezke; gurpildun aulkiekin edo umeen kotxeekin ibiltzeko oztopoak, esaterako". Emakumeen autonomiaren alde lan egitea da helburu nagusia.



Emakume bat alabarekin eta umearen kotxearekin kalean. | A.G.



Emakume bat alabarekin eta umearen kotxearekin kalean. | A.G.

## Agorrosinen uda "bikaina" izan da, Kirol Zerbitzuen esanetan

75.000 pertsona joan dira udan Agorrosinera eta hilabete jendetsuena ekaina izan da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Udaleko Kirol zerbitzuek emandako informazioaren arabera, uda honetan 75.000 erabiltzaile izan ditu Agorrosinek. Beste era batera esanda, batez beste eguneko 860 pertsona joan dira.

### Ekaina, hilabete jendetsuena

Urtero moduan, ekaina izan da hilabete jendetsuena: 1.260 lagun joan ziren Agorrosinera. Beste aldean, bisita gutxien jaso zituen hilabetea iraila izan da: 555 pertsona.

2011ko datuekin alderatuta, bai osotara eta baita batez bestekoei erreparatuta ere, erabiltzaile kopurua igo egin da uda osoan zehar.

Abonatu kopuruei dagokien ere datu onak lortu dira. Uztailean 4.925 abonatu izan dituzte, inoizko datu onena. Kirol Zerbitzuetako arduradunen esanetan, udako kanpaina "bikaina" izan da.

### Ikastaroak irailaren 24an

Hilaren 24an hasiko dira denboraldi berriko ikastaroak. Aurten 1.806 plaza eskaini dira eta astean 17 ikastaro ordu. Arrakasta gehien izan duten jarduerak igeriketa eskola eta areto-bizikleta izan dira. Hala ere, oraindik plazak geratzen dira. Hilaren 24tik 26ra jarduerak doan probatzeko aukera egongo da ordu zehatz batzuetan.

### Kirol eskolen aurkezpena gaur

Gaur, astelehena, 2012-2013 ikasturteko kirol eskolak aurkezteko ekitaldia egingo dute Irizar jauregian, 19:00etan. Ekitaldi irekia izango da; beraz, interesa duen edozein herritar gerturatu ahal izango da. Bergarako Kirol Elkarteko Josetxo Muniategi (eskubaloi saila), Jose Manuel Zulueta (futbol saila) eta Alex Gardoki (saskibaloi saila) izango dira bertan, baita Kirol zinegotzi Lauri Askargorta ere.

## Pol-Polekoek aste bukera borobila Pirinioetan

Pol-Pol taldeko beteranoak Huescako Pirinioetan barrena ibili ziren aurreko asteburuan. Bi jardunaldi egin zituzten, zein baino zein ederragoa. Zapatuan, Somportetik Ayousera eta domekan Piedrafitta de Jacatik Bubaleko urtegia zeharkatu eta Bubal herrirainokoa. "Asteburu borobila" igaro zutela esan digute.





Ardiak kortan, eta Ricardo Goikoetxea jana eramaten. | IÑAKI VERGARA



Ricardo Goikoetxea gazta egiten. | IÑAKI VERGARA

## Galtzear dagoen artzainen bizimodu latza ikusgai, Oñatiko kultura etxean

Ricardo Goikoetxea artzain nafarraren egunerokotasuneko pasarteetan dago oinarrituta erakusketaren ardatz den liburua



Goikoetxea ardiari erditzen laguntzen. | IÑAKI VERGARA

UBANE MADERA | OÑATI

Ikusi ez duenak azkeneko egunak ditu Oñatiko kultura etxean ipinita dagoen *Artzaina / El Pastor* izeneko erakusketa ikusteko (18:00-20:00). Izan ere, domekan (irailaren 23an) kenduko dute argazkilaritza eta etnografia uztartzen dituen lan hori.

60 argazki baino gehiagorekin batera, artzainek egunero erabiltzen dituzten lanabesak eta tradiziozko artzainez jantzita dagoen panpina bat ere ikusgai dira erakusketan.

### Memoria gorde

Azken batean, ekimenaren helburua da "gure bailaretatik desagertze dagoen bizimoduaren berri eman: artzainen bizimodu gogor eta arriskutsua. Izan ere, lanbide hau gure arbasoen oroitzen dagoen galtzear dago", azaldu dute antolatzaileek.

Hala, belaunaldi berrien ezaugarrian ere gurako lukete eragin artzaintzaren gaineko erakusketak horren bitartez: "Txikienei bizimodu hau erakutsi, arrotz sentitu ez dezaten; eta helduei berau gogorarazi, igarotako denboraren testigantza gisa".

### Liburua oinarri

Hori guztia ardatz, *Artzaina: Una vida unida a la tradición* izenburua duen liburua ere bada erakusketa horretan. Hain justu ere, liburu horretako materiala da eta, Oñatira ekarri duten erakusketaren oinarria. "Zortzi urtean egindako argazkiekin osatutako liburua da. Atentzioa eman zidan desagertze dagoen artzaintzan jarduteko modu horrek: mendira igo, bertan eman denbora morda... azken batean, ardiak etxetik gertu eta kortan izateagatik, mendira igotzeko ohitura galtzen dabil", azaldu du Iñaki Vergarak, liburuko argazkien egileak.

### Ricardo Goikoetxea artzaina

Hain justu ere, Ricardo Goikoetxea Uharte-Arakilgo artzainaren bizimoduan oinarrituta dago liburua. "Haren bizimoduaren egunerokotasuneko pasarteak batzen ditu: ardiaren zaintzak dakarrenetik, gazta egiteraino: transhumantzia, mendian ematen duten denbora, gaztagintza, erditze garaia eta Uharte-Arakilgo artzain zakur lehiaketa, besteak beste. Oraindik ere artzaina da Ricardo, eta azpimarratzekoa da bere ogibidearen gogortasuna".

Adibide moduan, datu esanguratsua eman du Vergarak: "Orain 50 urte mendira igotzen zenean 100 txabola zeudela kontatu zidan; eta orain, berriz, 10 besterik ez direla geratzen".

Liburuko testu-egilea, Jon Orbaitz kazetari nafarra da.

## San Migeletako tenis txapelketa irailaren 22an hasiko da

San Migeletako tenis txapelketa zapatuan, hilaren 22an, hasiko dute. 16 urtetik gorako zaleendako txapelketa da eta interesatuek bihar, martitzena, baino lehen eman behar dute izena kiroldegiko bulegoetan, 954 71 63 75 telefonoan edo [zubikoa@oinati.net](mailto:zubikoa@oinati.net) helbidean.

Lehen fasea ligaxka modura jokatu dute, jokalariek taldeetan banatuta. Final laurdunak, finalerdiak eta finala kanporaketa moduan jokatu dute.

## Espetxeetako egoerari buruzko hitzaldia kultura etxean

Oñatiko parrokiako Espetxe Pastoraltzak hitzaldia antolatu du hilaren 19rako. Mikel Goenaga Astiagarragako parrokoak egingo du berba presoek bizi dituzten egoeren gainean. Berbaldia kultura etxean izango da, 18:30ean.

Goenagak lan handia egingo du presoekin. Horieta bakoitzak bizi zuen egoera pertsonalaren aurrean, Espetxe Pastoraltzak egin ahal duen lana jorratuko dute eguaztenean. Batzarra irekia da.

## Euskaltegian izena emateko epea zabalik dago hilaren 21era arte

Udal Euskaltegia izena eman gura dutenek hartarako aukera dute hilaren 21era arte. Interesatuek Bidebarrietako egoitzatik pasa, 943 78 24 96 telefonora deitu edo [euskaltegia@oinati.net](mailto:euskaltegia@oinati.net) helbidera mezua bidal dezakete.

Euskaltegia euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak, hizkuntza eskakizunak, autoikaskuntza ikastaroak eta Oñatiko euskara lantzeko aukerak eskaintzen dituzte.

Tituluak lortzeko azterketa ofizialak maiatzean eta irailean egingo dituzte.

## Hilaren 29ko eta urriaren 6ko azokak, egubakoitzean

San Migel eta Errosario jailetan, zapatuetan egingo diren plazako eta Santa Marinako azokak eguneko aldatuko dituzte. Hain zuzen ere, irailaren 29an (San Migel eguna) eta urriaren 6an (Herri Eguna) ez da azokarik egongo. Horren ordez, egubakoitzean egingo dituzte: irailaren 28an eta urriaren 5ean.

Oñatira etortzea dagokien bi zapatu horietan herriko jaiak direnez, ohiko saltzaileei egubakoitzean etortzeko aukera emango die Udalak. Gero, norberak erabakiko du.

## Arantzazuko bizilagunak jaietan

Irailaren 7tik 9ra arte jaietan murgilduta ibili ziren Arantzazuko auzotarrak. Tortilla eta mus txapelketak, auzo-bazkaria, erromeria eta aizkolarien erakustaldiak izan zituzten, besteak beste. Gainera, orain ia 50 urte Aita Lasaren ikasle izan zirenek erretratua atera zuten.



MAIDER ARREGI

## ARETXABALETAKO

# Udalak Iturrigorri txukun eta garbi mantendu nahi du, zikinkeriak saihestuta

M.A. / A.T. | ARETXABALETAKO

Iturrigorri pilotalekuan hainbat lan egin zituzten uda aurretik, horien artean, pilotaleku guztia itxi eta pareta nagusiaren gainaldean olana jarri. Aurrekontua 55.000 eurokoa izan da eta orain araudia onartu du Udalak eta zein ordutan izango den zabalik zehaztu: astelehenetik egubakoitzera, 8:30etik 21:30etara; zapa-tuetan, 8:30etatik 20:00etara eta domeketan, 9:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

## Zikinkeria saihestu nahian

Udalaren asmoa da txukun eta garbi mantentzea eta zikinkeriak saihestu gura ditu (boteilloa, umeen litxarreriek uzten duten zikinkeriak...). Gainera, ezingo da jolastu futboleko eta pilotarako bakarrik erabili ahal izango da. Bestalde, usoek ere zikinkeria handia sortu dute eta oraindik ere arazoa guztiz ez dela konpondu uste dute; izan ere, uso pare bat dagoeneko barruan dabilta.



Muxika kirol teknikaria eta Fernandez kirol zinegotzia usoei begira. | M.A.

Udala oso kezkatuta dago kontu horrekin eta behin betiko konpondu gurako luke, sare bat jarrita sabaian esaterako. Aurrekontua eskatuta daukate.

## Erreserbak

Bestalde, pilotalekua erabili gura dutenek erreserba egin dezakete. Hiru hilabete behin egiten dute

zozketa udaletxean eta irailakoa joan zen astean egin zuten. Hurrengo azaro bukaeran izango da. Hala ere, oraindik ordu batzuk libre daudela jakinarazi dute, tartean martitzen eta eguenean, 18:00etatik 19:00etara; egubakoitzean, 18:00etatik 20:00etara; zapa-tuko ordu guztiak; eta domekan, 11:00etatik aurrera.

## ESKORIATZAKO

**Eneritz Zubia**  
Ibarraundiko teknikaria

## "Pozik gaude Udako Argazki Lehiaketak izan duen harrerarekin"

A.T. | ESKORIATZAKO

Aurten lehenengoz Ibarraundi museoak Udako Argazkien Lehiaketa antolatu du eta Eneritz Zubia bertako teknikaria-ekin izan gara.

## Nolako harrera izan du lehenengo edizioak?

Harrera ona izan du, lehenengo urtea izateko pozik gaude. Azkenean, guztira 21 partaide aurkeztu dira udako argazkien lehiaketara eta 42 argazki inguru jaso ditugu.

## Nolako argazkiak jaso dituzue?

Denetarik jaso dugu. Hemen inguruko hondartza eta mendietan ateratakoak dira asko. Baina badaude kanpoan ateratakoak ere, adibidez, New York eta Marokon ateratakoak.

## Hiru kategoriatan banatu duzue lehiaketa adina kontuan hartuta.

## Adin guztietako pertsonen lanak jaso dituzue?

Denetarik egon da baina agian gaztetxoek, 15 urtera bitartekoak, izan dira gutxien bidali dituztenak. Gainontzekoak animatu direla ikusi ahal izan dugu.

## Eta argazkiak uda guztian zehar joan zarete jasotzen?

Bai, hala ere, gehienak azken momentuan iritsi zaizkigu, abuztu bukaera eta iraila hasieran.

## Lan guztiak jasota, hurrengo pausua erakusketara jartzea izango da, ezta?

Bai, 30 argazki inguru aukeratu ditugu eta horiekin erakusketara jarriko dugu Ibarraundin gaurtik aurrera. Herritarrek doan sartu ahal izango dira eta euren botoa emateko aukera izango dute. Facebook edo webgunearen bitartez ere bozkatu ahal izango da. Erakusketara gaur zabaldu eta hilaren 28ra arte izango da ikusgai, arratsaldetan ere zabalik egongo da 18:00etatik 20:00ak arte. Urriaren 2an izango ditugu hiru irabazleen izenak eta orduan banatuko ditugu sariak.

## ESKORIATZAKO

## Oposizioa ez dago ados Udal Gobernuaren balorazioarekin

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZAKO

EAJ-ko zinegotzi Aitor Urrutiak dio legegintzaldiko urte honetan Udaleko eguneroko bizitzak dituen gai garrantzitsuenak aurrera eramateko ez duela "inongo irizpiderik atzeman" eta "zurian joandako urtea" izan dela. Lan sustapenerako laguntzak edo herriko merkataritzaren sustapena bezalako oinarritzko gaiak "asmo onen atalean etenda" jarraitzen dutela ere gaineratu du. "Batere lideratu gabe benetan agintzen dutenengatik erabat babesturiko alkate batentzat %33-99ko dirusari igoera" ere salatu du, Merinok bezala. Bukatzeko, Urrutiak hauxe dio: "Benetan, gehiago espero zitekeen gainontzekoekin hain deskalifikatzaile eta exijentea

den ezker abetzalearen gehiengo osotik, bere gobernantza gris hori, porrot handi baten irudi nabarmena baino ez baita".

Ezker Anitzako Juan Luis Merino zinegotziak, berriz, "etsigarritzat" jo du Udal Gobernuaren agintaldiko lehenengo urtea. Merinok salatu du Udalak ez duela herritarrek laneratzeko planik garatu. Gaineratu du agintaldian "bakarrik eta eskusiboki" arduratu direla "jaialdiak antolatzea eta horrelakoetan kolaboratzea herriaren beharrak alboratuta". Zerbitzu azpikontratuaren municipalizazio proiektuari "oraindik itxaroten" ari direla ere esan du eta salatu dekretu bidez gobernatzen dutela.

## Eman daiteke izena hilaren 24an hasiko diren kirol jardueretan

A.T. | ESKORIATZAKO

Aurten beste urte batzuetan baino lehenago hasiko dira kirol jarduerak guztiak, datorren astelehenean, hain zuzen, bai lehorrekoak eta baita uretakoak ere.

## Lehorreko jarduerak

Jarduera berri hauek izango dira: core-lan, enborra lantzeko ariketa berritzaileak; tonifikazioa, gorputz osoaren tonu muskularra garatzeko; multitfitnes, egoera onean egoteko; eta hirugarren adineko gimnasia, adin horretarako behar zehatzei erantzuteko gimnasia leuna. Beste urte batzuetan bezala, pilates, spinnig eta aikido ere eskainiko dira.

## Uretako jarduerak

Igerilekuan ere jarduera berriak daude: igeriketa hastapena 2009 eta 2010ean jaiotako umeentzat; eta hirugarren adineko igeriketa.

Gainera, aquagym-eko eskaintza zabalagoa da aurten; klaseak eskainiko dira goizetan, eguerdian eta arratsaldean. Eta iaz bezala 4-10 urte bitarteko umeentzat eta helduentzat igeriketa ikastaroak ere izango dira (hastapena eta hobekuntza).

Kirol jarduera guztiak datorren astelehenean hasiko dira. Izen-emate epea zabalik dago eta matrikulatzeko kiroldegitik pasatu behar da izen-emate orria betetzera.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan  
**EUSKARAZ**  
plazera delako!

Aretxabaletako Udala  
EUSKARA SAILA

**ELGETA**

# Herriko 13 baserriarrek ziurtatu dute postua zapatuko azokan

Domekan, berriz, irteera antolatu du Udalak Egoarbitza aldeko sekoiak eta haginak ikustera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Apurka bada ere urtetik urtera gehiago dira iraileko azokan postua ipintzera animatzen diren herritako baserriarrek. Zapatu goizean egingo dute urte honetako azoka, eta honezkeroko 13 baserriarrek ziurtatu dute bertan izango direla. Iaz 12 izan ziren, eta duela bi urte 11.

Azokaren helburua da herrian egiten den ekoizpena jendaurre-

ra eramatea, eta bide batez salmenta zuzena bultzatzea. Azoka 11:00etan zabalduko dute, eta 13:00ak bitartean Herriko plazan aurkituko dituzte baserriarrek. Frutak, barazkiak, ogia, gazta, ezta... askotariko produktuak eskainiko dituzte aurten ere.

Eguna, gainera, egitarau zabalarekin dator; argazki erakusketa, Intxortako igoera, Sagardo eguna, tortilla lehiaketa...

## Domekan Egoarbitzara

Udalak, bestalde, *Elgeta ezagutzen* ekimena abiatuko du domekan, hilak 23. Asmoa da herriko hainbat txoko ezagutzeko hileroko irteera bat egitea.

Lehenengo txangoa Egoarbitza aldera egingo dute, besteak beste, bertan dauden eta gurean gutxi ikusten diren sekuoiak eta haginak ikusteko. Irteera 10:00etan abiatuko da plazatik.



Duela bi urteko baserriarren azoka. | JOSETXO ARANTZABAL

## ASTE BUKAERAKO AGENDA

### HILAK 22, ZAPATUA

11:00 Baserriarren azoka.

11:00 Txorimalo erakusketa.

11:00 Herriko baserrien argazki erakusketa.

12:00 Intxortara igoera.

13:00 Txorimalo lehiaketaren sari banaketa.

13:00 Elgetako trikitilariak.

14:00 Bazkaria gaztetxean.

17:00 Patata tortilla lehiaketa.

19:30 Trikipotea.

21:00 Bertso afaria gaztetxean.

00:30 ON taldea.

### HILAK 23, DOMEKA

10:00 Irteera Egoarbitzara.

\* Zapatu goizeko ekintzak zein tortilla lehiaketa Herriko plazan egingo dira.

**ARAMAIO**

# Txirritola eguneko txotx irekiera Maider Unda aramaioarrak egingo du

Udalak omenaldia egingo dio domekan, Txirritola euskara elkartearen urteko egunik handienean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Sagardoa eta euskara eskutik helduta datoz aurten ere Txirritola egunerako. Domekan izango da, hilak 23, eta euskara elkarteak gertu dauka egitaraua. Txirritola elkartearen ezagutzera eman eta euskal giroan egun alai pasatzea da helburua.

Ezin da ahaztu Txirritola-eguneko urteko egun handiena dela. Jaia sagardogileen elkarrekin batera antolatzen da, hainbat herritarren kolaborazioarekin. Izan ere, hainbat aramaioar inplikatzeko dira taloak egiten, pintxoak prestatzen edota trikitia jotzen. Aurten 13 bat sagardogile egongo direla aurreratatu digute antolatzaileek.

## Aureskua, oroigarria...

Aurtengo nobedade nagusia da Maider Unda borrokalaria aramaioarrari egingo dioten omenaldia, Londresko Olinpiar Jokoetan lortutako brontzezko domina dela-eta: "Udaleko ordezkariak esan ziguten Maiderri omenaldia egin gura ziotela eta eskatu ziguten ea Txirritola eguneko egitarauan sartzeko aukerarik bazegoen. Hala, erabaki dugu txotx irekiera hark egitea".

Omenaldiaren barruan, besteak beste, aureskua dantzatuko diote, oroigarri bat emango diote eta, noski, bertsoak ez dira falta izango. Pozik jaso du gonbidapena Oletan bizi den borrokalaria.



Txirritolako kideak eta sagardogileak plazan, iaz, gonbita egiten. | J.BEREZIARTUA

**ANTZUOLA**

# Gaurtik aurrera gripearen kontrako txertoa har daiteke

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Hilaren 17tik, gaurtik, urriaren 31ra bitartean artatuko dituzte txertoa hartzera doazen herritarrek osasun etxeetan eta ambulatorioetan, aurrez txanda hartuta. Antzuolarren kasuan, Bergarako osasun etxeeko administrazioa deitu beharko dute -943 03 54 00 telefonora-, eta txanda hartu Antzuolako Osasun etxean txertoa hartzera joateko.

Osakidetzatik ohartarazi dute gripea gaixotasun infektiboa dela eta edonork harrapa dezakeela; eta gehienetan larria ez bada ere, batzuetan arriskutsua izan daitekeela ondorengo talde hauetan: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta gaixo kronikoak (biriketakoak, bihotzekoak, gibeletakoak eta giltzurrunekoak). Txertoa

hartzeko nork bere herriko osasun etxera edo ambulatoriora jo beharko du. 65 urtetik gorakoek kasuan, nahikoa da osasun-txartel indibiduala edo NA eramatea; aipatutako arrisku talderen batekoa izanez gero, ohiko medikuarengana joan behar da paper bila.

## HITZALDIAK

EH-Bilduk antolatuta, *Krisi ekonomikoa gaur eta hemen* hitzaldia izango da egunean Olanaren, 19:00etan. Urretxuko Joseba Garmendia ekonomialariak emango du krisia oinarri duen hitzaldia.

Bestetik, *Belaunaldien arteko elkartasuna* izeneko hitzaldia izango da hilaren 19an erretiratuen elkartean, 17:00etan. Hizlaria Izarne Lizaso Elgarresta izango da.

**LEINTZ GATZAGA**

# Andramaixetan giro bikaina izan da, udal ordezkarien esanetan

San Milixan eguneko azoka antolatzen hasi dira orain, eta artisauek postua eska dezakete

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udal ordezkariak ez dute jaien gaineko balorazio ofizialik egin, baina Iñaki Agirreurreta Kultura zinegotzia pozik azaldu da Andramaixetan izandako giroarekin: "Eguraldia lagun oso giro polita izan dugu, eta nik uste dut azken urteotan baino jende gehiago elkartu dela. Gau giroa ere bikai-

na izan da, eta herritar asko kanpoan elkartu dira afaltzeko".


Dorletako Ama Birjinaren egunean, zapatuan, Otxandiokoek egun-pasa etortzeko ohitura dute, eta mordoa elkartu ziren aurten: "100 lagunetik gora; pentsa, aulki barik geratu ginen", dio, eta gaineratu: "Gatzagatik, osterara, gutxi joan izan dira Otxandiora,

eta ohitura berreskuratzeko eskatu digute". Zinegotziak uste du herritarrek ere pozik daudela jaiak eman dutenarekin.

## San Milixan eguneko azoka

Jai batzuk bukatu eta dagoeneko beste bat gertatzen hasita dago Udala: azaroaren 11n ospatuko den San Milixan eguneko azoka. Bertan parte hartu gura duten artisauek eskaera egin behar dute aurretik, eta epea zabalik daukate. Udaletxera bideratu behar dira eskaera orriak eskatutako agiriekin batera; azken eguna urriaren 8a da. Oinarriak Udalaren webgunean daude: [www.leintzgatzaga.com](http://www.leintzgatzaga.com).

## SARI NAGUSIA



## Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05  
e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Bidali KLUBA TELEBISTA  
[Bazkidearen zenbakia]  
zenbaki hauetara:  
SMS bidez 215800  
WhatsApp bidez 688 69 00 02

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

## OKI V19B-LED4 telebista

- LCD monitorea, 19 hazbetekoa
- Bereizmena: 1366 x 768 pixel.
- HD ready
- HDMI eta USB sarrera bat
- LTD, bereizmen handikoa



## SARRERAK

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA** ikusteko gonbidapenak.  
Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko. Pertsona bakoitzendako bi gonbidapen.

PARTE HARTZEKO:  
Bidali KLUBA SARRERAK  
[Bazkidearen zenbakia] zenbaki hauetara:  
SMS bidez 215800  
WhatsApp bidez 688 69 00 02  
Telefonoz: 943 25 05 05  
e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)



## Atera etekina

goienakluba 2012

# %2 ko deskontua



AVIA MECA  
gasolindegia  
Arrasate, 943 79 13 39

- %2ko deskontua, gasolindegian erregaia erositako.
- %2ko deskontua, dendako produktuetan.

## LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL



AQUARIUM  
Donostiako aquarium-a  
Donostia, 943 44 00 99



ARGIA  
euskarazko aldizkari orokorra  
Lasarte-Oria  
943 37 15 45 - 943 37 34 03



BEGONDO  
optika  
Aretxabaleta, 943 79 98 21



EUREKA!  
zientzia museoa  
Donostia, 943 01 24 78



ESKO SPORT  
kirol denda  
Eskoriatza, 943 71 52 96



GAHIR  
fisioterapia-osteopatia  
Eskoriatza, 943 71 43 41



GAES  
Centros Auditivos  
Entzumen zentruak  
entzumen zentroa  
Arrasate, 943 71 27 93  
Bergara, 943 76 94 55



GUZTIZ  
EDER  
edertze zentroa  
Oñati, 943 78 01 46.



IKER  
sukaldeak  
Arrasate, 943 79 00 43  
Oñati, 943 53 35 48



IZENADUBA BASOA  
Euskal Herriko parke mitologikoa  
Mungia, 94 674 00 61



JAIXAK  
denda  
Bergara, 943 76 31 45



LASTAI  
haurtzaintza eta atseden gunea  
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA  
edertze zentroa  
Bergara, 943 76 31 71



MULTIOPTICAS  
lehen zerbitzu optikoetan  
optika  
Arrasate, 943 79 29 95  
Bergara, 943 76 15 75



NAREN  
fisioterapia zentroa  
Aretxabaleta, 943 08 21 89



RENAULT AUTOBERRI  
kontzesionarioa  
Arrasate, 943 71 24 72



TXURI URDIN  
izotz jauregia  
Donostia, 943 46 44 00



**OHOREZKO ERREGIONALA**

# Derbi lehiatua izan zen Mondra atzean urduri jarri eta Aretxabaletak haginka egin zuen arte

Zuri-moreak aurreratu ziren partiduan, baina bigarren zatian Aretxabaleta hobea izan zen

**EMAITZA**

MONDRA  
**1-2**  
ARETXABALETA

**FITXA TEKNIKOA**

**Mondra:** Ander Ruiz, Oleaga (Kevin 45.min), Del Palacio (Erik 76.min), Calzon, Zabaleta, M.Gonzalez (Azkarate 75.min), Aizpurua (Pavon 57.min), Txonan (Markel, 62.min), Zaitegi, Iker Lopez, Uribarren.

**Aretxabaleta:** Iker, Gartzzi, Oianguren, Kerman, Etxabe, Igartua, Sanchez, Orueta, Oinatz (Apraiz 57.min), Aitor Perez (Badillo 68.min), Josu (Gilen 82.min).

**Beste:** Aspaldiko partez jende asko Mojategiko harmailetan.

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Ligako lehenengo partidua eta Mojategiko harmailak beteta. Baina ez da komeni larregi ilusionatzea, Aretxabaletak ere zale asko erakarri zituelako Mondraren zelaira. Epaileak partidua hasiera adierazi aurretik Arrasateko klubak merezitako agurra egin zien –UDAKoen laguntzaz– urtetan etxeko taldea defendatu duten Mikel Gartzziari, Jokin Pavori eta azken kapitainari, Kepa Mercaderri.

Eta lehia hasi eta berehala –erlojuak 4. minutua erakusten zuen– Aretxabaletako atezain Iker Agirregabiriak pase konprometua jaso, nahi moduko kontrola egin ez eta aldaratzea Txonanek jaso zuen. Area kanpoan zegoen Txonan, eta birritan pentsatu barik jaurti zuen. Baita ondo bota ere, zutoinean jo eta barrura (1-0).



Bigarren golaren egile Iker Sanchez, zerura begira ospatzen; gol horrek bazuen jabea. | JULIO CALLEJA

**Lehen zati motela**

Gol horrek ez zituen gauzak askorik aldatu, joko tratatua izan zen lehenengo zatikoa. 22. minutuan izan zuen Aretxabaletak alde txikitzeak aukera ona, baina ate-

ra egindako errematea Del Pozok atara zuen buruz, marra gainetik. Eta, lehenengo zatia amaitzear zela Aitor Perezen arraseko jaurtiketa bati erantzun ona eman zion Ruiz de Azua atezainak.

**Bigarren zatian UDA hobeto**

Lehenengo zatian ez zen larregi azaldu, baina Aretxabaletako jokalaririk ezin zaio oparirik egin, eta bigarrea hastez batera Arrasateko defentsakoek utzita-



## ARRASATE

**ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2012**  
IRAILAREN 17tik 23ra

**HIRI BUSA**

Irailaren 17tik 23ra hiri busean DOAN ibili ahal izango da.

\*\* Adingabeek autobusa erabili ahal izango dute nagusi batek lagunduta badoaz edo ohiko eskola bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezten)

**Irailak 17 - Astelehena**

**HITZALDIA** – Kanean haurren autonomia sustatzen. Eskola bideak – Marta Roman  
Kulturate – Areto nagusia 18:30ean

**Irailak 22 - Zapatua**

**BIRZIKLETA AZOKA** – Bigarren eskuko bizikleta azoka Seber Altube plaza 11:00–15:00  
• Noiz eta nola batuko den materiala (\*)

**SEG WAY eta TRIKKE** - Biteri plaza - 11:00-14:00

**ERAKUSKETA - EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK 'Mugitzeko beste era bat'**

Biteri plaza - 11:00-15:00  
Auto hibridoak eta elektrikoak, paseoko bizikletak, tolesgarriak, elektrikoak, segwayak...

**IKASTAROA – Gidatze eraginkorra / Gidatze ekonomikoa**

Kulturate – Jokin Zaitegi gelan - 09:30-13:30  
**Ikas ezazu autoa gidatzen, erregaiaren kontsumoa %20 txikituta.**  
Informazioa eta izen-ematea: Ingurumen Sailean edo BAZen  
Izena emateko azken eguna: 2012/09/19. Plaza mugatuak.

**Irailak 23 - Domeka**

**BIZIKLETA BIRA** - Arrasateko Eskoriatzako plazaraino bidegorritik  
Irteera: Seber Altube plazan 11:00etan

(\*) BIRZIKLETA azoka - Noiz eta nola batuko dugun materiala:

• **Zer batuko** dugun: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurrentzako bizikletak, trizikloak, patinak, patineteak, kaskoak, abiadura-neurgailuak, gurpilak, eskularruak, maillotak...

• **Noiz eta non batuko** dugun materiala: Udal Azokan

- Irailaren 15ean, zapatua - Irailaren 18an, martitzena, eta 20an, eguena  
11:00-13:00 11:00-13:00  
17:00-19:00

Salneurria jabeak jarriko dio

Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio. Irailaren 27an, eguena, 17:00-19:00, Udal Azokan



Gartzi eta Zaitegi lehia; atzean harmailak beteta. | JULIO CALLEJA

Partiduaren aurretik *beteranoei* egindako omenaldian. | X.U.

ko zuloa ondo aprobetxatu zuen Aretxabaletako 8ak. Lastima Mondrakoendako, ordura arte serio zebiltzalako atzean. Etxekoak urduri jarri ziren orduan, eta halako beste jokaldi batean

aurrealdean min egin zuen Iker Sanchezek aurreratu zuen Aretxabaleta (1-2). UDAk talde indartsua du, baina Mondrari, hasiberrian ere, baikor izateko detaileak ikusi zitzaizkion. Hasi da liga.

**LUTXO ITURRINO**  
MONDRA

"Gehiago indartu behar gara; jokalariai konprometituta ikusten ditut"

Ondo hasi duzue lehenengo zatia, baina bigarrenaren beharokada etorri da.

Bai, lehenengo zati txukuna egin dugula uste dut, baina bigarren zatian oso azkar egin digute gola, eta min egin digu. Urduri jarri gara gol horren ostean. Baina, oraindik goiz da guretako, zorte txar apur bat ere izan dugu ligako lehenengo partidua UDAREN kontra tokatu zaigulako. Poliki-poliki gauzak hobetzen joango gara.

**Detaila onak egon dira, baina zuzentzeko gauzak.**

Bai. Taldea gehiago indartu behar da. Baina jendea konprometituta ikusten dut eta joango gara poliki-poliki.

**Harmailetan jende asko.**

Pena ezin izan diegula garai-pena eskaini. Baina bai, giro polita egon da partiduan; ea horrela jarraitzen duten.



X.U.

**ALBERTO ALBISTEGI**  
ARETXABALETA

"Merezitako garaipena izan da, aukera gehiago izan ditugu"

Ligako lehenengo garaipena, eta derbian. Arratsalde biribila.

Bai, uste dut merezitako garaipena izan dela, guztira lauz-pabost aukera garbi izan ditugu, eta eurek golaren jokaldia kenduta ez dute aukera garbirik izan.

**Bigarren zatian Mondrak behera egin izana aprobetxatu duzue ondo.**

Gola falta zitzaigun. Nik uste dut lehenengo zatian ere ondo jokatu dugula, baina egia da bigarren zatian egindako lehenengo golaren ostean zabal-zabalik geratu dela lehia. Eta diodan moduan, ondoren gol aukera garbiak izan ditugu.

**Aurten zer egiteko gauza izan daiteke Aretxabaletan?**

Hori domekero-domekero ikusten joango gara; datorren astean etxean izango dugu beste partidua garrantzitsu bat.



X.U.

#### OHOREZKO ERREGIONALA

**Bergarak ligako lehen partidua irabazi du etxean (1-0)**

Mailaz igo berri diren taldeak arriskutsuak izaten dira maiz, motibazio extra batekin hasien dutelako denboraldia, errealitateak euren lekuan jartzen dien arte. Hala, Azkoitiko Lagun Onak esku hutsik joan zen Agorrosinetik (1-0).

#### OHOREZKO ERREGIONALA

**Etxean ez dira nahi moduan hasi oñatiarrak (1-1)**

Lasarteko taldearen bisita izan zuten Andoni Azkargortaren mutilek domeka arratsaldean, mailaz igo berri den Ostadarren bisita. Etxeko sentsasioak izaten dira baliotsuak eta lehenengo partiduan Ostadar etekin ona lortzeko gauza izan zen (1-1).

#### EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

**Bigarren jardunaldian buelta eman dio Mondrak tortillari**

Joan den astean burumakur erretiratu ziren Mondrako neskak, baina atzo Añorgan ondo borrokatzen dakitela erakutsi zuten zuri-moreek. *Hat-trick*-a egin zuen Alonsok, eta Mainerrek egin zuen laugarrena (1-4).

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



blum

FRANKE

G.  
GRUMAL

LOGISIETE



KESSEBÖHMER

BERGARA

Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)

LEZO

103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757

[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)

#### ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK



**Garbigailu integragarria, AWM 129**

- A klasea
- 7 kiloko karga
- 1.200 b/min

Prezio garbia,  
RAEE barne:

**447,65€**



**Ontzi-garbigailu integragarria, LFTA 2164 (60 cm)**

- A/A/A+ klasea
- Zarata maila: 47 db ½ • Karga automatikoa

Prezio garbia,  
RAEE barne:

**410,80€**



**Combi EBQH 20223 F -No Frost totala-**

- A+ klasea
- 200x60x65,5 (AlxZabxFon)

Prezio garbia,  
RAEE barne:

**685,20€**



**Labe pirolitikoa -Newstyle linea-**

- A klasea
- Pirolitikoa

Prezio garbia,  
RAEE barne:

**425,86€**



**Indukzio-plaka, Kic 631 TB -biselatua-**

- 3 zona, zona hirukoitza Booster 4000 w-rekin, Touch Control
- (TB biselatua)

Prezio garbia,  
RAEE barne:

**345,80€**



**Mikrouhin-labea, MIC 201 EX**

- 20 litro, 32 zm-ko hondoa,
- Altzairu herdoilgaitza, arrastoen aurkakoa

Prezio garbia,  
RAEE barne:

**175€**

'PITXI' HERREROREN OROIMENEZKOA

# Sarrailagileentzako izan da 'Pitxi' Herreroren zortzigarren oroimenezkoa

Final beroari aurre egin eta 19-17 irabazi zuten arrasatearrek

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

*Pitxi* Herreroren oroimenezko zortzigarren jardunaldiak badu irabazlea: Ford Mugarri Arrasate. Ane Herreroren mutilek Trapagaran izan zuten aurrez aurre eta norgehiagoka sutsua izan zen Iturripen jokaturakoa.

## Oroimenezko asteburua

Iturripeko kiroldegian egin da eskubaloitako taldeko entrenatzaile izan zen Jesus Maria Herreroren oroimenezko asteburua. Lau talde aritu ziren bertan: Ford Mugarri Arrasate, Eibar Eskubaloia, Trapagaran eta Gure Auzune.

Zapatuan finalurrekoak jokatu zituzten; Ford Mugarri Arrasate Gure Auzune talde gasteiztarra garaitu zuen (36-30), eta Trapagaranek aldiz, Eibar Eskubaloia taldea (24-23).

Ondorioz, domekan hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten finaletik kanporatutako bi taldeek, eta Eibarrentzako izan zen azkenean brontzezko postua. Imanol Alvarez Eibar taldeko entrenatzaileak gazi-gozotzat dauka hirugarren postua. "Aurreko partidua baino hobeto jokatu dugula esango nuke. Gainera, ez da inor lesionatu, eta ez da gutxi, liga hastear baita".

## Finala, bero-bero

Finalaren ordua iritsita, kantxara atera ziren Ford Mugarri Arrasate eta Trapagaraneko lagunak, aurretik erakustaldi sutsua zutela jakin gabe.

Poliki partidua graduz igotzen joan zen. Talde biek gogotsu defendatu zuten beraien atea. Harmailetan jendea berotzen hasita zegoen ordurako; nahiz eta denboraldi-aurreko partidua



Ford Mugarri Arrasateko mutilak Ane Herrero entrenatzailearekin, partidua amaituta. | Z.V.D.M.



Herrero eta Isasmendi, garaikurrarekin. | Z.V.D.M.

izan, jakin bazekiten beraien taldea final batetan zegoela.

Gol bat, falta bat, txartel gorria, eta beste gol bat. Aurreneko hogeita hamar minutuak pasata, atse-

denaldia iritsi eta 11-8 irakur zitezkeen markagailuan.

**Berdintasun handiko partida**  
Bigarren denboran, minutuek

aurrera egin ahala, markagailuan aurre hartuta joan zen talde arrasatearra. Baina bizkaitarrak esnatu eta hasi ziren arerioaren atean gol bat bestearen atzetik sartzen.

Finala amaitzeko bost minutu falta zirenean markagailuak berdinketa erakusten zuen: 15-15. Urduritasuna hatzekin uki zitezkeen partiduaren azken uneetan, eta bi minutu bakarrik geratzen zirela, Ane Herreroren mutilak hamazazpina berdinduta zeuden. Azken bi golak oharkabean iritsi ziren publikoarentzako, oihu egiten zuten talde bateko zein besteko jarraitzaileek, azken momentuan ere indarra transmititu guran. Partidu amaiera iragartzen zuen hotsa entzuterakoan, 19-17 esaten zien markagailuak ikusleei.



**KEPA ISASMENDI**  
FORD MUGARRIKO  
JOKALARIA

**"Finala irabazteak liga hasteko indar gehiago ematen digu"**

Norgehiagoka amaitu berri harrapatu dugu Ford Mugarri Arrasateko Isasmendi eta final parekatuari buruz hitz egin digu.

## Nolako finala izan da?

Trapagaranen kontrako finala oso partidu borrokatua izan da, izan ere, oso gol gutxi egon dira. Defentsak asko markatu du norgehiagoka, baina zorionez, azkenean berriro geratu da titulua Arrasaten. Egindako lanarekin gustura gaude.

## Denboraldi-aurreko partidua izanda, entrenatzeko ere balio izan dizue.

Egia esan, nahiko gogorra ari da izaten denboraldi-aurrea. Oraindik martxa hartu behar dugu, igarri egiten da eta hasieran gaudela. Baina horrelako partiduak ongi etortzen dira liga forman hasteko.

## Zer esan gura du zuentzako Pitxiaren oroimenezkoa irabazteak?

Azken finean, etxeko txapelketa da, eta ongi etortzen zaigu irabaztea, liga hasteko indar gehiago ematen digulako. Gainera, jende asko etorri da Iturripeko kiroldegira. Ea aurrerantzean ere ikusle kopuru polita animatzen den gu ikustera etortzen.

MIKEL DEUNA SARIA

# San Migel jaien atarian, eskubaloiaz gozatuz

Aloña Mendiko eskubaloiko saileko maila ezberdinek erakustaldia eman zuten Zubikoan

Z.V.D.M. | OÑATI

San Migel jaiak ate joka ari direla eta, XXXIV. Mikel Deunaren eskubaloitako txapelketa jokatu zuten Aloña Mendiko lagunak asteburuan Zubikoan.

Maila ezberdinetako taldeek hartu zuten parte; emakumezkoen kasuan, gainera, Usurbilen kontra jokatu zuten guztiek zapatuan. Kadete mailakoek 20-13 irabazi zuten partidua; gazteek 13-21 galdu zuten eta seniorrek aldiz, 23na

berdindu eta azkenean galdu egin zuten penaltietan.

Senior mailako mutilek domeka eguerdian eduki zuten hitzordua, Zarautzen kontra. Ondo borrokatutako partidua izan zen, baina garaipenak ihes egin zien oñatiarrei penaltietan, arauzko denbora amaitu eta 23-23 geratu ostean.

## Berritasunak taldeetan

Denboraldi hastear dela, Mikel



Gogor lehiatu ziren Zubikoan Aloña Mendiko neskek. | JULIO CALLEJA

Mantxolak Aloña Mendi Eskubaloitako Taldeko maila ezberdinak nola ikusten dituen azaldu digu. "Kadete mailako neskek talde polita daukatela iruditzen zait.

Bestalde, haurren taldea iaz Euskadiko Txapelketa geratu zen eta ongi ikusten ditut denboraldi berrian. Gazte mailari dagokionez, aurpegi berri ugari daude, eta

pixka bat kostatuko zaie martxa hartzea".

Senior mailako neskek, talde polita osatu dutela adierazi du Mantxolak. "Jende gaztea dabil, eta Gijondik hona ikastera etorritako neska bat ere hasi da taldean". Ez da berritasun bakarra, "Ainhoa Unamuno itzuli baita entrenatzaile moduan".

Mutiletan ere jokalar berriak hasi dira. "Gazte ugari igo dira mailaz eta entrenatzaileak ere berriak izango dira, Korkostegieta eta Benito".

Motibatuta ikusten ditu talde guztiak Mantxolak. "Gazteek ilusioz hasi dute denboraldi-aurrea, eta bai emakume eta baita gizonen seniorrek ere, talde indartsuak osatu dituzte, eta ilusio handiz egingo diote aurre denboraldi berriari".





Jokalari guztiak aurkeztu ostean, San Martin plazan ateratako familia erretratua. | XABIER URTZELAI

## SASKIBALOIA

# Soraluce BKE taldeak kalera atera du saskibaloia: 125 gazte guztira

- ▶ Zapatuan aurkeztu zituzten talde guztiak Bergarako plazan
- ▶ Hamaika talde izango dituzte, horietako lau emakumezkoak

XABIER URTZELAI | BERGARA

San Martin jaiak aprobetxatuta Soraluce BKE saskibaloia taldeak 2012/2013 denboraldiko taldeak aurkeztu zituen zapatu arratsaldean San Martin plazan. Klubaren indar erakustaldia izan zen, egia esan, guztira 125 neska-mutiko baino gehiago igo zirelako taula gainera, hamaika taldetan banatuta: "Klub moduan hazten jarraitzea da asmoa, indar osoa harrobian zentratuta".

**Taldeak ezagutarazi**

Mikrofonoa eskuan, zapatuko aurkezpenean Alex Gardoki ez zen klubaren kirol gestioa egiteaz arduratu, eta bai jokalaria banan-banan aurkezteaz. 17:30ean hasita, puntuan, elastiko urdina defendatuko duten saskibaloia jokalaria guztiak igo ziren taulara, euren entrenatzaileez lagun-

ALEX GARDOKI | SORALUCE BKE TALDEKO ORDEZKARIA

## "Saskibaloia kalera ateratzea da asmoa, egiten den lana erakustea"

**Hamaika talde dituzue, eta baita saskibaloia eskola ere.**

Bai, oso pozik egoteko modukoa da, eta halako aurkezpenekin herriak ikus dezake zelako lana egiten dugun saskibaloia elkartean. Gaur moduko ekitaldiekin gure ideia da saskibaloia kalera ateratzea, jendeak ikus dezala ze neska-mutiko dabilzan saskibaloian jokatzen.

**Klub moduan aurten dituzuen helburuak?**

Saskibaloia talde moduan harrobia indartzen jarraitu nahi dugu, entrenatzaile on batekin saskibaloia eskola indartu nahi dugu. Horrekin batera infantil mailan ere lan handia egin nahi dugu, eta horretarako pro-



bintzi mailako entrenatzaile on baten laguntza izango dugu, nahiz eta oraindik izenik ezin dugun aurreratu.

**Eta Bergarako Kirol Elkarte moduan ere nobedade handiak dituzue aurten.**

Hala da, klub moduan saskibaloia, eskubaloia eta futbol sailek proiektu bateratua dugu, guztiok batera lan egin nahi dugu, eta niretako oso albiste pozgarria da, gogotsu gaudete horri ekiteko.

**Astelehenean [Gaur] aurkeztuko duzue hori.**

Bai, harrobiak lantzeko eskola guztien aurkezpena astelehenean egingo dugu, Irizar Jauregian egingo dugun ekitaldian. Bertan azalduko dugu zergatik erabaki dugu klub moduan proiektu bateratu hau aurkeztea, eta nik uste dut egitasmoa erakusterakoan jendea pozik geratuko dela.

duta. Guztira hamaika talde izango dira, eta taldeko ordezkari Marian Melladok adierazi moduan: "Pozgarria da, besteak beste, infantil mailan emakumezkoen bi talde izatea, eta beste horrenbeste kadete mailan".

Gizonezkoen senior mailako taldeari dagokionez, kategoriarri eutsi zioten iaz, eta mailaz igo ostean ez zen helburu erraza izan. Aurten ere asmo berekin hasiko dute denboraldia, baina lehenengo taldeaz batera behokoak ere zaindu nahi dituzte. Hala, Gardokik azpimarratu zuen positiboa dela plazan egingadako moduko aurkezpenak egitea, klubak dituen talde eta jokalaria ezagutarazteko: "Labe-garaieta nahiko leku hotza da, eta herritar asko ez da konturatzeko han zenbat gazte ibiltzen diren saskibaloian jokatzen".

**Proiektu bateratuak**

Taldeak banaka aurkeztu ostean etorri zen familia erretratua egiteko txanda. Eta hor, nahikoa lan denak erretratuan sartzeko. Kontuan izan, bestalde, gaur, astelehena Bergara Kirol Elkarte eskubaloiko, futboleko eta saskibaloiko taldeek batera aurkeztuko dituztela euren harrobiak lantzeko proiektuak, saskibaloia eskola, futbol eskola eta eskubaloia eskolarekin.

## TXIRRINDULARITZA

## Ruben Fernandez ihes eginda iritsi zen helmugara

San Martin Sariko lasterketan, Caja Ruraleko ziklistak Angiozar aurretik egin zuen ihes

X.U. | BERGARA

Denboraldia amaitzeaz dago, eta batzuek orain arteko defendatu behar dutelako, eta besteek urtea txukundu nahi dutelako, dome-

kako lasterketan nahi beste egur izan zuten txirrindulariek Bergarako San Martin sarian. Debarrenako mutilek -tartean Oro-bengo, Lizarralde eta Rivero

bergararrak - euren lider Aitor Gonzalezek Lehendakari Txapelketan duen lidergoa defendatzeko egin behar izan zuten lan, gogor, gainera.

Angiozar aurretik Ruben Fernandez ihesaldia onartu, eta Caja Ruralekoak igoera osoa egin zuen bakarrik, baita Bergarako jaitsiera ere; indar handia behar da horretarako. Naturgas taldeko Imanol Estevez izan zen bigarren, eta Palentziatik espreski lasterketara etorri zen Juan Antonio Perez hirugarren.



Ruben Fernandez bakarrik helmugaratzen, San Antonion. | JULIO CALLEJA

## SASKIBALOIA

# Pepu Hernandez entrenatzailea, Natra Oñatiko jokalariekin solasean

Pepu Hernandez ostiralean izan zen Oñatikoen entrenamendu saioan

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Egubakoitzean, Natra Oñatiko jokalariek sorpresa izan zuten entrenamenduan. Jose Vicente Pepu Hernandez, Estudiantes taldeko eta espainiar selekzioko entrenatzaile ohia, Oñatiko muti-

len entrenamenduan agertu zen jokalaria agurtzera, eta hauekin minutu batzuk partekatuzera.

Pepu familiarekin herriko plazan zegoela entzun zuten, eta berehala joan ziren entrenamendu saiora gonbidatzeko asmoaz.

Arantzazun, Lucio Muñoz-en omenaldira joateko asmoz gerturatu zen Pepu Oñatira.

## Euskadiko kopa

Bigarren urtez, Euskadiko kopan parte hartuko dute oñatiarrek.

Datorren asteburuan, UPV eta Araberri taldeen kontra lehiatuko dira, bigarren hauen aurka, Oñatin domekan.

Horrez gain, Donostian garai- le irten ziren zapatuan, LEB 2 mailako Askatuak taldearen aur-

ka izan zuten lagunartekoan (56-61). Defentsako lan onak fruituak eman zituen.


## Bazkide kanpaina

Datorren egubakoitzean, hilak 21, bazkide kanpaina berria aurkeztuko dute Natra taldekoek Oñatiko plazan. Hitzordua 19:00-tan izango da, eta aurreko urteko 600 bazkideak gaintitza da taldearen helburua.

Fitxaketa berriak aurkezteko aprobetxatuko dute ekitaldi hau. Azpeitia Mobel Iraurgitik datoz hiru fitxaketak, eta umeek hauekin jolasteko aukera izango dute plazan bertan, taldeak jarriko duen saski batekin.



Oñatiko jokalaria Madrilgo Estudiantes taldeko entrenatzailearekin. | NATRA OÑATI



Pepu Hernandez, Eneko Blancorekin. | NATRA OÑATI

## MENDIA

## Gaur abiatuko da Himalaiara Alberto Iñurrategi, erronka berri batera

Himalaiako Nuptse mendia (7.861m), alpetar estiloan igotzen saiatuko da

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Alberto Iñurrategik erronka berria du eta, proiektu horretan, azken urteotako bidelagun izan diren Mikel Zabaltza eta Juan Vallejo izango ditu ondoan.

Antartikako esperientzia aberasgarria alde batera utzi, mendizaleak dagokien tokira itzuliko dira, mendira. NATURGAS BBK NUPTSE 2012 da proiektu berriaren izena eta BAT Basque Team taldeko alpinistak Himalaiako Nuptse mendia (7.861m) igotzen ahaleginduko dira, alpetar estiloan.

Mendi horretako hegoaldetik, oxigeno barik, soka finko barik, garraiatzaile barik eta altuerako kanpaleku egonkorrik barik igotzen ahaleginduko da hirukotea; orain arte inork ez du Nuptsen halakorik egin.

### Alpetar estiloaren alde

2009. urteaz geroztik, Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltzak Makalu mendia (8.463 m.), Hornbein korridorea (munduko gailurraren ibilbiderik latzena) edota Broad Peak delakoa (8.047 m.) eskalatzeko espedizioetan parte hartu dute Basque Team-en babespean.



Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltza, Himalaiara joateko prest. | ARGAZKILARIAXXX

Erronka horietan guztietan, alpetar estiloaren aldeko apustua ezinbesteko betebeharrak izan da eurentzat: igoera garraiatzaileen laguntzarik gabe, soka finkorik gabe eta altuerako kanpamenturik gabe egitea.

### Abentura hastear dago

Hiru mendizaleak Madriletik abiatuko dira gaur, astelehena.

Martitzenean iritsiko dira Katmandura, Nepaleko hiriburura, eta eguenean, hilak 20, beste hegazkin bat hartuko dute Lukla herrira heltzeko eta bertatik kanpamentu nagusira joateko trekkinga izango dute.

Prestaketa-aldia amaitu eta hiru aste izango dituzte Nuptse mendian gailur egiteko Iñurrategi, Vallejo eta Zabalak.

## PILOTA

## DV txapelketan aurrera egin du Arrasateko Ibai Bolinagak, atzean partidu bikaina eginaz

Ibai Bolinagak, irmotasunez irabazi zuen DV txapelketako partida Arrieta bikotearekin. Ordiziko Beti Alai pilota-lerkuan, Mendieta eta Castillo bikotearen aurka jokatu zuten partiduan, 22-8 irabazi zuten Bolinaga eta Arrietak. Hurrengo kanporaketa, Bergarako pilotalekuan izango dute, Elezkano I. eta Tolosa bikotearen aurka, datorren urriaren 13an.

## RALLYSPRINT

## Datorren zapatuan, hilak 22, korrituko dute Aramaioko 11. Rallysprinta

Azpiko racing taldeak antolaturiko, Euskadiko txapelketako, Aramaioko rallysprint-a ospatuko da datorren zapatuan. Irubietan eta Andramari bitartean egingo dute lasterka bertara gerturaten diren gidariak. Ibilbideak 23,4km izango ditu guztira, eta lehenengo autoa, 15:30 hasiko da. Lasterketa amaitzerakoan, plazan txapelketei garaikurrak emango zaizkie.

## SASKIBALOIA

## Ointxe! Arrasate saskibaloia taldekoak Tafallara joan dira lagunarteko partiduak jokatzen

Ointxe! klubeko kategoria ezberdinetako taldeak joan dira asteburu honetan, aurreboraldian, lagunarteko partiduak jokatzen. Aurreko urtean egin bezala, denboraldia hasi aurretik kluba osatzen duten talde guztiak joan ziren asteburu pasa Tafallara. Bertan, Tafalla, Tuteran eta Iruñako taldeen aurka jokatu dituzte partiduak.

## CAPOEIRA

## Capoeira ikastaroak Arrasate eta Bergaran egiteko aukera gaurtik aurrera

Hasiberrientzako dohaineko capoeira saioak antolatu dituzte, Senzala, kultur eta capoeirako kideek. Parte-hartzaile berriak batzeko asmoz, Bergaran, ITV pareko eraikinean; eta Arrasaten, San Viator ikastetxearen gimnasioan antolatu dituzte saioak, astelehenean eta eguaztenean hurrenez hurren. Saioak 18:45an hasiko dira, eta izena emateko, 625 772 295 telefono zenbakira.



Motxila 21 taldeko haurren kontzertu emanaldia. | JOSETXO ARANTZABAL

# Haur bakoitza mundu bat da; ezaugarri bereziak ditu

Nerea Agirrek aukera berdintasunaren aldeko hausnarketa eskaintzen du

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Haur guztiek aukera berdinak al dituzte? Nola jokatzeko dugu premia bereziak dituzten haurrekin? Nola jokatu beharko genuke?". Nerea Agirre pedagogo oñatiarrak galdera horiek guztiak egiten ditu *Guraso.com* atarirako idatzi duen azken kolaborazioan. Premia bereziak dituzten haurren inguruko gogoeta da.

Guraso gehienok onartzen dugu haur guztiek dituztela esku-

bide indibidual eta kolektiboak. Barneratuta dugu ere haur bakoitza mundu bat dela, hortaz berezia. Baina parean premia bereziak dituen ume bat dagoenean joera dugu ezberdin jokatzeko.

"Lehenengo urratsa, premia bereziak dituzten haurrei jarri ohi dizkiegun oztopo nagusienak identifikatzea izan daiteke", dio Agirrek. Oztopo horien artean aipatzen ditu baztertzea, gehiegizko babes eskaintzea, ezauga-

rri positiboak dituztela ez ikustea, erronka berriak ez planteatzea, elkarrekintzarako aukera gutxiago ematea, afektua adierazteko zailtasuna izatea... "Gure erantzuna normaltasunaren parametroetan kokatu beharko genuke". azaltzen du Agirrek. Nola jokatu jakiteko garrantzitsua haur bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea dela dio, eta horretarako gurasoei galdetu behar zaie: zer gustatzen zaio? Noiz haserretzen da?...

## Esterilizatuegia dagoen mundu batean bizi garen hipotesia

L.Z. | ARRASATE

Sistema immunitarioaren desorekak mundu esterilizatuegi baten ondorio izan daitezke.

Ikertzaile batek baino gehiagok dihardu lanean *higienaren hipotesia* izeneko esparruan. Ez dute sekula higiena ezkorra denik esango. Higiena ezak gaitasun kutsakor asko eta oso larriak ekartzen ditu, baina konturatuta daude baita ere azkenaldian ugaritu egin direla alergiak, eta koadro horiek gero eta gogorragoak direla. Azken finean, sistema immunitarioaren erreakzioak desorekatzen ari direla.

**Entrenamendu falta**

Hipotesia ulerterraza da; higienak bakterio ugariaren desgertzea edo gutxitzea ekarri du, eta horrek gure sistema immu-

nitarioaren entrenamendu falta ekarri du. Nabarmen jaitsi da sistema immunitarioak aurre egin beharreko desafio maila, eta entrenamendu faltagatik hauskorra bihurtu da, eta aurrekoak baino larriagoak diren gaitasunak ekarri ditu horrek. Alergia ugariago, gogorragoak... Mundu esterilizatuegiaren hipotesia darabilte eskuartean.

Ikertzaileek orain moduko higiene neurriekin jarraitzeko gomendioa egiten dute, baina zoratu barik. Esaterako, ez da ezer gertatzen lurrarekin jolasean egin ostean haurrak ez badu ogitartekoa jan aurretik eskuak non garbitu. Zergatik garatzen zen lehen sistema immunitario orekatuagoa? Hori ahalbidetzen zuen mekanismoa ikertu gura dute orain.



Haurrak parkean zikin. | YOU SET MY SOUL ALIGHT

## Pixoihal berrerabilgarrien onurak zalantzan jarri ditu Erresuma Batuan egindako ikerketa batek

L.Z. | ARRASATE

Hautsak harrotu ditu Erresuma Batuan egindako ikerketa batek; ikertzaileek ondorioztatu dute ingurumen-inkaktu berdina dutela erabili eta botatzekoak diren pixoihalak, eta berrerabilgarriak direnak. Azken horiek garbitzeko eta lehertzeko erabiltzen den energia kontuan hartuta aldea ez dela nabarmena ondorioztatu dute ikertzaileek.

**Garbiketa ohiturak**

Giltza, ordea, garbiketa ohituretan egon daitekeela diote *bebesymas* atari digitalean. Pixoihal berrerabilgarriak garbigailua ondo beteta dagoela garbitzen baditugu, eta lehorgailuan beharrean eguzkitan lehortzen baditugu jasangarriagoak dira aurretik den energia kopurua dela

-eta. Eta kontrakoa ere gertatzen da; pixoihal berrerabilgarriak garbigailua guztiz bete barik garbitzen baditugu, eta beti lehortzen baditugu lehorgailuarekin, eta gainera ume bakar batekin erabiltzen baditugu ingurumen inkaktu pixoihal konbentzionalekin baino %74 gehiago izan daiteke.

**Faktore ugari**

Pixoihal mota aukeratzea ez da erabaki erraza, izan ere, hainbat faktore hartu behar dira kontuan. Ingurumen-inkaktu faktoreetako bat da. Egia da ere pixoihal berrerabilgarriak merkeagoak direla —600 euro merkeago ume—, baina erabili eta botatzekoak diren fardelak emaitza hobek ematen dituzte xurgatze eta azalaren babes mailan.

## Motxilaren pisuak bizkarreko arazoak sor ditzake

L.Z. | ARRASATE

Eskolako motxilaren pisuak ez du haurraren pisuaren %10 gainditu behar. Hori da ikasurte hasiera honetan sendagileek egiten duten gomendioa.

Adin txikiko haurrek ez dute motxilarekin atzera eta aurrera ibili beharrik, baina ikasketetan aurrera egin ahala pisu gero eta gehiago hartzen dute eskolako motxilek, eta hor agertzen

dira lehenengo bizkarreko minak. Sendagileen esanetan bizkarreko arazoak 10 urterekin hasten dira agertzen, eta 15 urte bete aurretik haurren %50-70 bizkarreko minarekin kezkatzen dira. Sendagileek ohartarazten dute, gainera, haurtzaroko arazo puntual horiek helduaroan bizkarreko arazo kroniko bihurtu daitezkeela.

**Neurriak hartu**

Motxilaren pisua zaintzeko gomendatzen dute adituek, eta haurren muskulatura indartzeko ariketa fisikoa egitera bideratzeko. Gorpildun motxilak hobesten dituzte, eta bizkarrean eramatekotan pisua gerrialdean, gorputzetik gertu, eta ahal bada motxila gerriko batekin gorputzera lotuta eramateko aholkatzen dute



Neskatala motxila bizkarrean duela. | XANDA



# KULTURA



Papargorri abesbatzako gazte eta helduak batera abestu zuten Sastiñako emanaldiari amaiera emanez. | Z.V.D.M.

## Lertxundiren 'Erribera' aramaioar gazteen ahotik

Kantu herrikoiak entzun ziren Sastiñan egubakoitz iluntzean, Erribera, Furra furra, eta Xalbadorren heriotzean, besteen artean

ZURIÑE V.D.M. | ARAMAIO

Sastiñan izan zen hitzordua, egubakoitz iluntzean. Aretoa jendez betetzen joan zen herriko Papargorri abesbatzaren emanaldia

noiz hasiko zain. Momentu batek bestera protagonista izango ziren haur eta gazteen urduritasun puntua nabaritzen zen. Baina segituan lasaitu ziren, zuzen-

dariaren aginduarekin. Aurrena gaztetxoeren txanda izan zen. eta Eli Izagirreren gidaritzapean, Sorotan Bele taldearen *Arratsalde honetan* kantarekin eman

zioten hasiera emanaldiari. Besteen artean, *Gure aitak amari*, *Furra furra* edota *Haurrak ikas zazue* doinu ezagunak intonatzeaz gainera, zenbait abestitan esku bidezko koreografiak tartekatatu zituzten, baita musika tresnak eta dantzak ere.

Txalo artean amaitu zuten txikiek emanaldia eta gazteak irteten ziren jendaurrera orduan, Arantza Uriarte zuzendari lanean arituz. Hauek ere, abesti ezagunak hartu zituzten ahoan.

Askoren artean, Papargorri abesbatzako gazteek *Erribera*, *Xalbadorren heriotzean* zein *Nere herriko neskatxa maite* kantatu ostean, bi taldeak batu eta *Bagarre* kantuarekin aretoa abesten ipini eta modu horretan eman zioten amaiera saioari.

Bai entzule eta baita abeslariak ere, gustura irteten ziren hitzordutik. Eta orduan Sastiñak ixiltasunean itxi zituen ateak hurrengo hitzordura arte.

ELI IZAGIRRE  
ZUZENDARIA

"Musikarekin ongi pasa daitekeela erakutsi diegu herriko umeei"

Eli Izagirrek Sastiñan abestu zuten haurrak gidatzeko ardura eduki zuen.



Z.V.D.M.

**Zergatik egin da ekitaldia?**

Udalaren ekimenez egiten den ekitaldia da. Gu pozik gaude parte hartu dugulako. Izan ere, herrian musikari asko egon da beti, eta orain ere badaude, musika tradizionala zein modernoa egiten dutenak, gainera. Esan genezake funtsean ez dugula zaletasun hori galtzerik nahi.

Arrazoi horregatik hasi ginen duela zenbait urte abesbatzarekin. Gaurko ekitaldiarekin herriko gainerako lagunei ere erakutsi nahi genien zer egiten dugun eta musikarekin ongi pasa dezaketela erakutsi.

**Jendea gustura egon da gainera abesti ezberdinak entzuten, ezta?**

Abesti ezberdinak, herrikoiak gehienak, ezagunak, eta batez ere, abesgarriak.



MAIA VILLALBA  
PAPARGORRIKO KIDEA

"Ondo joan da emanaldia. Hasieran oso urduri nengoen, baina bukatu denean hobeto sentitu naiz, gustura geratu naiz. Aspaldi hasi nintzen kantatzen eta horrelako abestiak kantatzea zerbait desberdina da".



LEIRE ELEJALDE  
PAPARGORRIKO KIDEA

"Oso esperientzia ona izan da, izan ere, nola abesten dugun entzuten dudanean ongi egiten dugula iruditzen zait. Eta pila bat gustatzen zait abestea, eta horrelako aukerak edukitzea eskertzen dut".



TERESA ARRIOLABENGOA  
PAPARGORRIKO KIDEA

"Gaur gustura aritu naiz. Irakasle ona daukagu eta aukeratu diren abestietako batzuk asko gustatzen zaizkit, baina beste batzuk aldiz, zailak dira. Nire kasuan lagun batzuk animatuta hasi nintzen abesten".



Def Con Dos taldeko hiru abeslariak, kontzertuko une batean. | JAGOBA DOMINGO

# Iraultzarako deia egin zuen Def Con Dos-ek

- ▶ Kaleko poesiaz jositako kantuak Oñatin
- ▶ 'Tuno bueno, el tuno muerto' 20.urteurrenean

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Def Con Dos talde madrildarra ikusteko gogoela nabaria zen Oñatiko Gaztelekuan; 350 bat lagun hurbildu ziren Cesar Strawberry eta bere mutilekin gau bero bat pasatzera, bi ordu inguru iraun zuen emanaldian.

XX. urteurrena ospatzeko biran sasoi betean daudela erakutsi zuten lehenengo kantutik. Kontzertuaren martxa ezinhobea izan zen, kantu klasikoak eskaini zituzten, eta bata eta bestearen artean, ez zen egon lasaitzeko tarterik. Rock eta rap kontutan erregeak direla argi utzi zuen atzo DCD taldeak. Public Enemy taldekoak harro egongo dira.

'Mens sana in corpore tullido'

Gogor ekin zioten emanaldiari, *¿Que dice la gente?* edo *Acción mutante* kantuekin, eta ikusleak berotzen hasi ziren. Bateria-jole Kiki Tornadok eta baxu-jole den J. Al Andalus-ek lan itzela egin zuten kontzertuan zehar. Momentu askotan, erritmo-baseak metraitela zirudien.

Hiru musikariek kantuen baseak egin bitartean, Strawberry, Peon Kurtz eta Marco Masacre abeslariak iraultzarako kontsignak bata bestearen atzetik bozgorailuetatik jaurtitzen zituzten, beste garai bateko gerrillari balira bezala. Estudioko diska gehien erreparosoa egin zuten, baina

batez ere, *Armas pal pueblo*, *Ultramenia* edo *Dogmatofobia* albumetako kantak jo zituzten. Ikuskizun izerditsua izan zen zapatuko kontzertua.

Publikoak gehiago nahi

Gaztelekura gerturatutako publikoak madrildo raperoen hurrengo kontzertuaren zain geratu zen, hogeitaz urte hauetan, denborak jakintsuago egin dituelako eta oholta gainean publikoarekin lotura estua lortzen dutelako.

Talde honi eskatzen diogun gauza bakarra da, hogeitaz urte barru oraindik indar eta militantzia sozial berdinarekin jarraitzea. Bizitza luzea Def Con Dosi.

## Artistaren izana eta lana ardatz hartuta omendu zuten Lucio Muñoz Arantzazun

Basilikako absidearen egilea omentzeko antolatutako ekitaldiek jende asko erakarri zuten

TXOMIN MADINA | OÑATI

50 urte beteko ditu aurten Arantzazuko Basilikako abside bereziak, eta hori aitzakia hartuta absidearen margolari izan zen Lucio Muñoz (1929-1998) artista madrildarra omendu gura izan dute Arantzazuko Adiskideak elkarteak eta Arantzazu Gaur fundazioak.

Lagunak hizlari

Omenaldi zapatu goizean goiz hasi zen mahai-inguru jendetsuarekin. Ez zen gutxiagorako, bertan parte hartu zuten eta Lucio Muñozen seme Rodrigok, Antonio Lopez margolari ospetsuak eta baita Julio Lopez Hernandez eskultoreak ere. Azken biek oso gertutik ezagutu zuten Muñoz,

eta denen artean haren bizitza, izaera artistikoa eta Arantzazuko absidea egin zueneko garaiak erreparatu zituzten, tarteka hungigarria, tarteka dibertigarria izan den solasaldian.

Hitzaldiaren ostean, Miguel Angel Alonso arkitektoaren eskutik, absidearen nondik norakoak eta xehetasunak bertatik bertara ezagutu ahal izan zituzten omenaldian parte hartu zutenek. Azalpenak gainera, Esteban Elizondo organo-jotzaileak jotako piezekin tartekatu zituzten.

Omenaldiaren barruan pintura lehiaketa ere egin zuten, eta Arantzazun oinarritutako koardroak margotu zituzten 51 parte-hartzaileen artean, Xabier Urtiaga izan zen irabazlea.



Antonio Lopez absideari buruzko azalpenak jarraitzen. | JULIO CALLEJA

## Kaimanleon, piztia estreinakoz

Def Con Dos taldearekin taula konpartitu aurretik Oñatiko Kaimanleon taldekoek diskoaren aurkezpena egin zuten arratsaldean. Ondoren, Gaua gogotsu hasi zuten herriko kideek. Musika munduan ibilbide luzea dute, eta lehenengo kontzertua izateko euren arteko konplizitate nabaria zen. Stoner musika eta erritmo astun eta ilunak jorratzen dituzte laukoteak, hala ere, oholta gainean geldi ezinik egon ziren kontzertu osoan zehar.



Laukotea, disko berriaren aurkezpen ekitaldian. | JULIO CALLEJA

RODRIGO MUÑOZ | LUCIO MUÑOZEN SEMEA

## "Aitaren murala intenporala da"

Nola ari zarete bizitzen omenaldia?

Emozio handiarekin. Denborageneraman Arantzazun zerbait egin guran; aitaren ibilbidean sinbolismo handia duen tokia da. Urteekin konturatu zen Arantzazuk zuen dimentsioaz; neurri baten, bere ibilbideko gailur bat izan zen.

Zer suposatu zuen absideak bere ibilbidean?

Zerbait oso berezia. Mural bat egiten zuen lehen aldia zen. Nire



ustez obra honen bertute handiena da lan erlijiosoa dela, baina era berean benetako Lucio Muñoz bat dela.

Hasierako indarra mantentzen du?

Aita asko arduratzen zuten horrek, baina absidea ikusten zuenean ondo zahartu zen irudipena zeukan. Oso barrutik doan zerbaiti erantzuten dio muralak; inguruko naturaren ikuspegi nahiko zintzoa eskaintzen du eta horrek intenporala egiten du.




# UDA KO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan



**TXANKLETAK.** Argazkia Zarautzen ataratakoa da abuztuaren 18an. Bertan Hawaiiiana txankleta batzuk ikus daitezke. /Argazkia: Uxue Otxoa Alberdi /Arrasate



**GILTZARRAPOAK.** Parisen 2010eko abuztuaren ataratako argazkia. Notre Dameko zubian dago ateratako argazkia, bertan maitaleek giltzarrapoak jartzen dituzte beraien maitasuna betikotzeko. /Argazkia: Adeli Porcel /Arrasate



**RUTA DEL CARES.** Abuztuaren Ruta del Caresen ataratako argazkia. Poncebosetik Cainera egin genuen ibilaldia. Argazki hau Cain-era heldu aurretik dagoen lakua da. /Argazkia: Miren Zubizarreta Obeso /Oñati



**ERROMES BIDEA.** Argazki honetan, Andoni, Ane eta Mikel agertzen dira Santanderetik gertu Santiagoko erromes bidea jarraituz. /Argazkia: Jon Ander Barbero /Aretxabaleta



**TAILANDIAKOTXALUPA.** Aurten, Tailandiako txaluta tipiko bati ateratako argazkia. /Argazkia: Pedro Javier Barbero Sanchez /Aretxabaleta



**PLAZAKO GAUGIROA.** Argazkia 2009ko udan atera nuen Marrakechen, Marokon. argazkian Marrakecheko Djemma el Fna plaza ikusten dugu gaueko giroan. /Argazkia: Itziar Egiruren /Oñati



**GONDOLAK.** Venezia, galtzeko leku ikusgarria. 2012an ataratako argazkia. Bertan, gondolak ikus daitezke. /Argazkia: Carlos Sanchez Berrio /Arrasate



**TAILANDIAKO KALEAK.** 2011ko abuztuaren Tailandian oporretan hilabete egon nintzeneko argazkia. /Argazkia: Ioseba Izurtegi /Aretxabaleta



**AUTOBARRUTIK.** Argazki berezi hau Marokoko Erg Chebbi basamortuan dago aterata. Auto barrutik dagoenez etarata, kristaleko hautsa eta aurrean zihon defenderra ikusten dira. /Argazkia: Jone Albeniz /Bergara



**CANCALEKO PORTUA.** 2012ko Uda, frantzian ateratako argazkia. Bertan, Cancaleko (Bretainia) portua agertzen da. /Argazkia: Amaia Agirre /Bergara



**OLAGARRO BILA.** Argazkia aurtengo udako abuztuaren ataratako da Tapia de Casariegón, Asturiasen. Marea jaistean emakume eta gizon bat olagarro bila. /Argazkia: Abraham Osa Epelde /Bergara

# VIII. GOIENA LEHIAKETA

Webgunea: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)



Baita hemen ere:

udakoargazkiak  
 udakoargazkiak



**ORTZADARRA.** Paisaia goibel bat baino ez zena, ortzadarraren ondorioz une batean begira geratzeko modukoa. /Argazkia: Ainara Altuna/Bergara



**TERUELEN ESKALATZEN.** Aurtengo abuztuan, Albarracinen (Teruel) bloke egiten. /Argazkia: Xabier Derteano Lizarralde/Oñati



**ZUHAITZAREN ATZEAN.** 2012ko Uztailak 30ean, Urederran egindako argazkia Itziar Azkarraga-Urizar da argazkiko neska. /Argazkia: Ainara Inuntziaga Ugarte/Aramaio



**SALTOKA.** Maitane eta Myriam arratsalde eguzkitxu batean Bermeoko Portuan saltoka. /Argazkia: Ayala Martin/Aretxabaleta



**AMAKAN LOTAN.** Udako bazkalondoko lo kuluxka egiten amaka baten. /Agurtzane Basterra Lizarralde/Oñati



**ARTEA ZINTZILIK.** Maputoko (Mozambique) artisauen lorategian ateratako argazki honetan, kolorez margotutako ehunak ikusten dira. Bizikleta aparkatu eta disfrutatu dezagun. /Argazkia: Uri Urizar/Aretxabaleta



**BERRIZBUELTAN.** Opor ostean berriz lagunekin bat. /Argazkia: Iraitz Azkargorta Viguera



**GARIA.** Arabako gari lurrak. Abuztuan ateratako argazkia. /Argazkia: Juan Luis Elizaran Trojaola/Arrasate



**BURBUIL-JOLASA.** Abuztuaren 18an atera nuen Sant Pere de Ribesen (Bartzelona). Konturatu nintzen Irati alabatxoaren burbuil-jolasa etxeko paretan islatzen zela. Kameraren bila joan, baina bueltatu orduko alabatxoa beste zeregin batzuetan zegoen. Txikle bateaz "sobornatu" nuen berriro burbuil-jolasari lotzeko. /Argazkia: Ander Etxeberria Otadui/Arrasate



**WROCLAW-KO PARKEA.** Aurtengo udan Wrocław-en (Polonia) atera genuen argazki bat... Paraje ear askuak han be! /Argazkia: Aitziber Etxebarria/Oñati



### Sariak:

- 1. saria:** Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
  - 2. saria:** Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
  - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herritarren saria:** bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotelean.  
**Boto emalleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:





# UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan



**SAREAK.** Cudilleron, Asturiasko herrixka arrantzaleen ateratako argazia. Portuan zintzilikaturiko arrantzaleen sareetako bat... /Argazkia: Edurne Zabala Saez /Bergara



**ZIRRIKITUTIK BEGIRA.** Argazkia Albarracinen aterata dago (Teruel), 2012ko abuztuan. Argazkian agertzen dira Lide, Saioa eta Garazi, herriak dituen zirrikitu etako batetik begira. Espainiako herri-rik politena, Azorinen ustez... /Argazkia: Saioa Ojanguren Ojanguren /Arrasate



**TXIRRITXI HANDIA.** Zumaiako paduretan Argazkiko hegaztia txirritxi handia da eta hondartzako hondarran deskantsatzen zegoela aterata nion argazkia... /Argazkia: Iñigo Jimenez Baños /Eskoriatza



**ARRANTZALEAREN TXALUPA.** Argeliako Sajar el Belah hondartzan, arrantzalearen txalupa bakartia. /Argazkia: Ioana Alberdi Yarza /Arrasate



**IRAKURTZEN.** Udan hondartzara joatea ondo dago, baina hau aurrean dela, liburu bat irakurtzea ere bai... /Argazkia: Juanjo Etxezarreta /Antzuola



**URJAUZIA.** Aurten Venezuelan ateratako argazkia. Aponwaur jautzian Gran Sabanan eta gure lagun bat agertzen da txiribuelta bat egiten. /Argazkia: Mikel Urbarren Borrego /Arrasate




**KANOIA.** Danba! eta Colón ez zen Ameriketara helduko... /Argazkia: Oskar Elizburu /Arrasate



**ARRATSA.** Itsas Bidain bigarren geldiera Mykonos. 2012ko Abuztuan. Itsasontzirako bueltan ataratako argazkia. /Argazkia: Mireia Zurbano /Arrasate



**EZINEZKOMISIOA.** Irlatxoa mugitu nahian. 2012ko uztailan Celorion (Asturias) ateratako argazkia. /Argazkia: Luis M Dacosta /Oñati



**ESTU.** Marrakecheko (Maroko) kale estuetan. /Argazkia: Joseba Gabilondo Markes /Eskoriatza



**ORLAZAKO FAROA.** Abuztuan ateratakoa, Lanzaroten. Orzolako faroa da, itsasontzi batetik ateratako argazkia da. /Argazkia: Yasmína Moreno /Bergara



**MARIÑELAREN ZAI.** Santorini (Grezia) irlako itsasargian ateratako argazkia. Sorotan bele taldearen abestiak dioen bezala, marinela zai ote? /Argazkia: Eneritz Larrea Arozena /Elgeta



# VIII. GOIENA LEHIAKETA



Baita hemen ere:

 udakoargazkiak

 udakoargazkiak



en: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)



**AMODIOA.** Amoranteak Bosforon, itsasotzi baten. 2011.urtean Istambulen (Turquia) ateratako argazkia. /Argazkia: Xabier Errasti /Bergara



**LORAK.** Laura Bataller nire neska agertzen da eta bertan herrian zeuden lore sorta ageri da. Moztutako enborrak batetik landare ostoz batzuk ageri dira eta atzekaldean gure kurtzebarri agertzen delarik. /Argazkia: Juanjo Caceres /Eskoriatza



**SANABRIAKO LAKUA.** 2012ko abuztuan ateratako argazkia, Zamorako Sababria lakua ikus daiteke. /Argazkia: Rakel Gamito Gomez / Arrasate




**ERREKAORTUIBARPASEALEKUTIK.** 2012ko abuztuan Bergaran ateratako argazkiak. /Argazkia: Maitane Montiel /Arrasate



**GAMBIAKO EMAKUMEA.** Zuretzat, goizero ohetik altxa eta eguzkiaren lehen izpiekin batera inkolanari ekiten dion emakume, lagun, bikote kide, alaba, ama... zarelako. /Argazkia: Amaia Vazquez Agirreurreta /Arrasate



**ARGAZKILARI EHIZATUA.** Ilunkarian argazki on baten bila ebilen argazkilari bat ehizatu genuen. /Argazkia: Maite Ugarte Prieto /Oñati



**CHICLANAKO ILUNABARRA.** La Barrosa hondartzan etaratako ilunkara baten argazkixa, horizontian Sancti Petri gaztelua ageri dala. /Argazkia: Iñaki Igartua Irizar /Oñati



**PORTUKO BALKOIA.** Ezker - eskuin, auzoa kontrolpean dute argazkiko bikoteak. Uztailen, Tazonos (Asturias) herriko portuan ateratako argazkia da. /Argazkia: Iosu Zabaleta Elorza /Bergara



**ZIPOLITEKO HONDARTZA.** Zipolite (Mexiko), ze leku politte! Lasaitasunaz eta hondartzaz gozatzeko leku aproposa! /Argazkia: Maialen Martinez de Zuazo /Oñati



**ZALDIA LASTANTZEN.** Pragako Plaza Nagusian aterata, Abuztuak 24an. Neskatila bat ageri da, gurdi-zaldi bat lastantzen. /Argazkia: Kepa de Vega Izagirre /Elgeta



**NATURA.** 012ko uda plitvice lakuak, kroazian ateratako argazkia. Lakuak turistaz lepo egon arren, naturak bizirik dirau sorgin-orratzean.. /Argazkia: Uxue Agirre Madariaga /Bergara

## ZUZENKETA

Pasa den asteko Asteleheneko Goiena papereko 33. orrian argazki baten egilea txarto argitaratu genuen. Ahuntzaren argazkia Elgetako Manu Montielena zela esan genuen eta ez zen zuzena. Aretxabaletako Joxemiel Urizarren Azpiazurena da. Barkamena eskatu nahi diogu akatsarengatik Joxemiel Urizarreni.







iPhone 5a, beltzean, atzetik eta aurretik. | APPLEWEBLOG



Kable berria. | APPLEWEBLOG

# Ahalmen eta pantaila handiagoarekin, lilura txikia eragin du iPhone berriak

Irailaren 28an ipiniko dute salgai modelo berria

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Espero moduan, inor liluratu ez duen garapen tekniko on bat aurkeztu dute Applekoek. Belaualdi berri batera jauzia egin barik, iPhonearen modelo berria aukera tekniko osatuenak dituen da. Eta, espero zen moduan, telefono berriak pantaila handiagoa dauka, finagoa eta arinagoa

da eta, nobedade nagusi moduan, konektatzeko kable berria dakar.

## 'Zinema' pantaila

Pantailaren proportzio berria 16:9 da, *zinema* proportzioa, eta, neurri berriari esker, hasiera pantailan aplikazioen ikono lerro bat gehiago kabitzen da. Horrez

gainera, kolorearen kalitatea ere hobetu dute.

Zehaztapen teknikoek dagoenez, prozesatzailean eta konektibitatean izan dira berrikuntza nabarmenenak, abiadura azkartu egiten dutenak. Hala, errendimendu bikoitza duen A6 prozesatzailea dakar iPhone 5ak. Bateria ere landu dute, eta pan-

tailari emandako espazio horretaz baliatu dira bateriari leku handiagoa emateko. Kamerari dagokionez, iPhone 4Sarena hobetu dute.

Berrikuntza teknikoak ugariak izan dira, baina ukituko ez dutena prezioa da. Lehen eskaintzen arabera, modelo librerik merkeenak 679 euro balio du.



Udal ordezkariak, eguzteneko aurkezpenean. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

## Ibarreko nekazarien produktuak 'on line' salduko dira aurrerantzean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ibarreko nekazaritza-guneak jendeari gerturatu eta, bide batez, horietan ekoiztutako produktuak herritarren eskura salgai ipini dituzte *Baserrisarea.com* webgunean. Urrats bat gehiago eman gura izan dute, landa eremuari garrantzia emanda eta produktuak erabiltzaile guztien eskura ipinita. Turismoarekin lotutako informazioa aurki daiteke webgune berrian, baina, horrez gainera, herritarrei zenbait tramite *on line* egiteko aukera ematen zaie; besteak beste, dirulaguntza edota formakuntzarekin lotutakoak.

## 'On line' denda

Baina, adierazi bezala, ibarreko ekoizleen produktuak edonoren eskura ipintzen ditu webguneak, eta *on line* denda egokitu dute horretarako. "Garaiak aldatu dira, eta gaur egun ekoiztea ez da horrenbeste kostatzen, zailena saltzea da". Hala adierazi du Jesus Elortzak, Bergarako alkatetza. Oraingoan, txakolina, gazta, haragia eta halako produktuak saltzen dituzten zazpi ekoizle aurki daitezke bertan. Irailean eskaintza berezi bat egongo da: erosketak doan jasoko dituzte Internet bidez erosten dutenek, hain zuzen ere.

## Merkaturatzeko gertu daukate Nintendo Wii U kontsola berria

J.B. | ARRASATE

Gabonetako kanpaina poliki-poliki gerturatzen dabil eta Nintendok ere badu urte amaierarako apustu nagusia. Nintendo Wii U bideo-joko kontsola berriaren berritasun nagusia GamePad deritzon pantailadun urrutiko kontrola da. Horrez gain, NFC teknologia ere bada- kar kontrol berriak.

Japonian abenduaren 8an ipiniko dute salgai eta dagoeneko egin dute aurkezpena. Aurreko Wii kontsola baino hogeitaz potentetagoa izango da Wii U bertsioa, eta modelo bi izango ditu, giga kopuruaren arabera.

## Urrutiko kontrola

Ezaugarri eta osagarri guztietan deigarriena, baina, pantaila eta puntero lanak egiten dituen GamePad urrutiko kontrola da. Urrutiko kontrola baino gehiago, tablet baten ezaugarriak ditu GamePadak, pantaila uki-garria, girokopioa eta kamera baitakartza, besteak beste.

Merkaturatzearekin batera *Super Mario Bros U* eta *Nintendo Land* izeneko jolasak gertu izango dituzte Nintendokoek. Interneterako konexioa ere egiten du kontsola bereziak, eta Nintendokoek ahalegin berezia egin gura dute jolas kolaboratiboak garatzeko.



Kontrol berria, jolas batekin. | SLASHGEAR.COM

## 'Hadopi' legearen lehen kondentua, Frantzian

J.B. | ARRASATE

Belfort hiriko auzitegi baten kondentatu dute herritar bat lehen aldiz eta *Hadopi* legearen ondorioz musika fitxategiak legez kanpo deskargatzeagatik. Kondentatuak aitortu duenez, haren emaztea izan zen Rihanna kantariaren abesti bat deskargatu zuena, eta zabarkeria delituagatik 150 euro ordaindu beharko ditu. *Hadopi*-ko bozeramaile batek jakinarazi duenez, kondentatu behin baino gehiagotan ohar-tarazi zuten epaitua izan baino lehen.

*Hadopi* moduan ezagutzen den legeak dio epaitegietara jo baino lehen, erabiltzaileari hiru abisu egin behar zaizkiola. Ustez legearen kontra doan jarduerak horrek jarraituz gero, *Hadopi*-k Datuen Babeserako Batzordearengana jotzen du. Une honetan 14 espediente dauzkate zabalik, bozeramaileak jakinarazi duenez.

*Hadopi* legea 2009an abiatu zuten eta deskarga ilegal batengatik ezar daiteken zigorririk larriena 1.500 euroko isuna da.

## Ehun milioi erabiltzailetik gora ditu Instagramek

J.B. | ARRASATE

Argazkiak erakusteko sare sozialak, gainera, partekatutako bost mila milioi argazkiren marka ere gainditu du. Facebookek erosi zuen Instagram arrakastan gora zihuan unean, 700 milioi dolarren truke, eta orain, Zuckerbergen eskuetan, bere unerik onenean dago Instagram. Datuak benetan ikusgarriak dira, aplikazioak berak hilean 10 milioi deskarga baitu, batez beste. Aurreko astean amaitu zen, hain zuzen, Instagram eros- teko prozesua, eta orain, guztiz dago zerbitzua Facebooken jabe nagusietako baten eskuetan. Zuckerbergekek berak adierazi du bere asmoa dela erabiltzaile kopurua biderkatu eta zerbitzua hazten jarraitzea. Oraingoan, ez du bestelako iragarpenik egin, baina litekeena da Facebook eta Instagram zerbitzuen erabateko integrazioa lehenago baino beranduago iristea; hain justu ere, Facebooken erabiltzaile eta jarduerak kopurua gelditzen dabilenean.

## TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

## Telebista guztia berdina al da?

Oraintsu arte gure telebistak 8-9 kate izatetik mordoxka bat izatera pasa dira. LTD, antena parabolikoak... 11 kate berri ikusteko aukera dugun arren, patroia antzerakoa edo berdina da, ze kate bateko programak bestean errepikatzeten baitira.

Gure telebista eredu beste toki batzuetan ikusten da? Bai eta ez, ez eta bai. Hemen eta Txinan telesailak, informatiboak... ikusten dituzte, baina ez dugu horren urrun joan behar beste telebista mota bat ikusteko. Ba al zenekien Frantziar *call TV* programak debekatuta daudela? Eta hau ez da daturik harrigarriena, Frantziar telebistek aste bukaeretan ez dute filmik ematen jendea zinera joan dadin; ziur sarrerak hemen baino merkeagoak direla!

Honelako gauzek pentsatzeko aukera ematen didate. Zein hurbil gauden eta zein ezberdinak garen! Dena den, Frantziako telebistak zenbait aspektutan esketx bateko parodia dirudi, ez dago txutxu-mutxu programarik, berrietan ez dago kirol atalik... Agian, politegia da hemen eredu hori txertatzeko. Baina kopiatu beharrean, zenbait gauza gureganatu ditzakegula uste dut.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 17



## Harmailatik

Futbol denboraldia hasteaz batera hasiko dute Goiena Telebistan kirolen saio Harmailatik. | 21:30

12:25 Magazinea  
13:10 Zorion Agurrak  
13:15 Onein  
13:43 Ekogune  
14:13 Jaiak: Lekeitioko jaiak  
14:43 Berriak  
15:03 Eguraldia  
15:06 Zorion Agurrak  
15:11 Erreportajea: Hizkuntza ekologia  
15:41 Erreportajea: Aralar  
16:11 Erreportajea: Zer jan, hura izan  
16:41 Zorion Agurrak  
16:46 Berriak  
17:06 Eguraldia  
17:09 Onein  
17:41 Goierrri Creation Center  
18:06 Esatea libre  
19:21 Ekogune  
19:56 Berriak  
20:16 Eguraldia  
20:19 Magazinea  
21:04 Berriak  
21:24 Eguraldia  
21:30 Harmailatik  
22:15 Magazinea  
23:00 Harmailatik  
23:45 Berriak  
00:16 Eguraldia

MARTITZENA, 18



## Erreportajea

Erreportajeen barruan *Zer jan, hura izan* izeneko atala egongo da ikusgai, elikaduraren gaineko saioa. | 22:00

12:30 Magazinea  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Harmailatik  
14:05 Erreportajea: Zer jan, hura izan  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Harmailatik  
15:53 Onein  
16:21 Goierrri Creation Center  
16:56 Berriak  
17:16 Eguraldia  
17:19 Ikusmira  
17:49 Bizitegia  
18:19 Harmailatik  
19:04 Laino arteko plana  
19:32 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan  
19:58 Berriak  
20:18 Eguraldia  
20:23 Magazinea  
21:08 Berriak  
21:28 Eguraldia  
21:30 Harira  
22:00 Erreportajea: Zer jan, hura izan  
22:30 Musikaz Gain  
22:41 Magazinea  
23:26 Jaiak: Lekeitioko jaiak  
23:56 Berriak

EGUAZTENA, 19



## Tertulia

Horrenbeste ika-mika sortu duen bidesarien gaineko tertulia gidatuko du Goiaz Arana kazetariak. | 22:28

12:30 Magazinea  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Harira  
13:53 Musikaz Gain  
14:03 Harmailatik  
14:48 Berriak  
15:08 Eguraldia  
15:11 Ikusmira  
15:41 Onein  
16:08 Goierrri Creation Center  
16:43 Berriak  
17:03 Eguraldia  
17:06 Harmailatik  
17:51 Zorion Agurrak  
17:56 Musikaz Gain  
18:07 Laino arteko plana  
18:37 Harira  
19:10 Erreportajea: Hizkuntza ekologia  
19:40 Zorion Agurrak  
19:45 Musikaz Gain  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:18 Magazinea  
21:03 Lehiaketa  
21:18 Berriak  
21:38 Eguraldia  
21:43 Magazinea  
22:28 Tertulia  
23:28 Berriak  
23:33 Eguraldia  
00:08 Eguraldia

EGUENA, 20



## Planik bai?

Arantzazu Ezkibel kazetariak asteburura begira jarriko gaitu *Planik bai?* telebista saioarekin. | 21:04

12:20 Magazinea  
13:05 Zorion Agurrak  
13:10 Tertulia  
13:40 Tertulia  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan  
15:34 Goierrri Creation Center  
16:04 Musikaz Gain  
16:15 Erreportajea: Zer jan, hura izan  
16:45 Berriak  
17:05 Eguraldia  
17:08 Tertulia  
18:08 Onein  
18:35 Planik bai?  
18:55 Walker  
19:25 Ekogune  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:19 Magazinea  
21:04 Planik bai?  
21:24 Berriak  
21:44 Eguraldia  
21:47 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan  
22:13 Walker  
22:43 Planik bai?  
23:03 Magazinea  
23:48 Berriak  
00:23 Esatea libre  
01:38 Berriak

EGUBAKOITZA, 21



## AsteOn

Arrixu Barruso kazetariak ekarriko du astearen errepasoa iruditan, eta zenbat erreportaje ere. | 22:00

12:30 Planik bai?  
12:50 Magazinea  
13:35 Zorion Agurrak  
13:40 Onein  
14:03 Laino arteko plana  
14:33 Musikaz Gain  
14:43 Zorion Agurrak  
14:48 Berriak  
15:08 Eguraldia  
15:11 Planik bai?  
15:31 Bizitegia  
16:01 Erreportajea: Bioaniztasuna arriskuan  
16:27 Ekogune  
16:57 Berriak  
17:17 Eguraldia  
17:20 Planik bai?  
17:40 Ekogune  
18:10 Harira  
18:43 Tertulia  
19:43 Laino arteko plana  
20:13 Berriak  
20:33 Eguraldia  
20:36 Planik bai?  
20:56 Harira  
21:27 Berriak  
21:47 Eguraldia  
21:50 Musikaz Gain  
22:00 AsteOn  
22:35 Erreportajea: Zer jan, hura izan  
23:05 Berriak  
23:25 Eguraldia  
23:28 Planik bai?  
23:48 AsteOn

## ARRASATE IRRATIA

## Mugikortasun Astearen jarraipena egingo dugu Arrasate Irratian

Gaur hasten da Mugikortasun Iraunkorraren Astea, *Nire autorik gabeko hiria!* lelopean. Aste osorako askotariko ekin-tzak antolatu ditu Udalak; adibidez, Seber Altubeko birzikleta azoka. Eta haien berri emango dugu. Beraz, 107.7ko uhinetan, ingurumena eta mugikortasuna.

## 'Arrasate 1936' dokumentala aztergai Julia Mongerekin

Irailaren 18an estreinatzen den *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa* dokumentalari buruz solasaldia izango dugu Julia Mongerekin, Intxorta 1937ko kidearekin. Aste honetan estreinatuko dute, Amaia antzokian, Dragoi Produkzioek ekoiztutako lan berri hori.

## Opari zoragarria Kukuxumusuren eskutik

Aste honetako zozketan, *Ardi-bidez* izeneko mahai jokoa da sari nagusia. Kukuxumusu marka arrakastatsua kaleratutako mahai joko hori lortu nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo bidali mezu bat *irratia@goiena.com* helbide elektronikora. Zorte on, bada, guztoi!

## TELE-ALBISTEAK

## 'Harmailatik' saioa berriz ere zuekin gaurtik aurrera

Denboraldi berriari ekingo dio gaur Xabier Urtzelaireren taldeak, kirolen berri emateko

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Udako etenaldiaren ondoren, gure artean izango dugu berriz ere *Harmailatik* kirol saioa. Debagoieneko kirolari errepasoa emateko aukera ederra astelehenero, Xabier Urtzelaireren eskutik, Goiena telebistan.

Denboraldi berriari hasiera emateko, futboleko gure taldeen azken orduak ezagutuko ditugu, batez ere derbia aztertuta. Horrez gain, *Pitxi* Herreroaren omenaldian egongo gara, eta, amaitzeko, txirrindularitzari tarte polit bat eskainiko diogu.

## Derbia, indartsu hasteko

Futbol denboraldi berriari ekiteko, zabal landuko dute *Harmailatik*-en Mondrak eta Aretxabaletak jokatu duten derbia. Partidu horren jarraipen berezia egingo dute; laburpen zabalarekin batera iritziak ere batuko dituzte; tartean, *Lutxo* Iturrino eta Alberto Albistegi entrenatzaile berrienak. Horrenbestez, adi egon lehen saioari.

## Ziklistak saiora

Futbolaz gain, Espainiako Itzulian parte hartu duten bi txirrindu-



Aretxabaletaren eta Mondraren arteko derbiko une bat. | GOIENA


## Jarraipen zabala egingo diogu UDAREN eta Mondraren arteko derbiari

lari izango dira platoon: Markel Irizar oñatiarra eta Iban Velasco arrasatearra. Bada, Vueltan bizi izandakoak kontatuko dituzte, eta, jakina, baita denboraldiko azken lasterketen aurrean urteko balorazioa egin ere.

## 'Pitxi' Herreroaren omenaldia

Asteburu honetan, Iturripen, Ford Mugarri Arrasate, Gure Auzuene, Eibar Eskubaloia eta Trapagaran taldeak egongo dira Herrero omentzen. Txapelketaren berri, astelehenean.

## ZORION AGURRAK



OÑATI  
**Maialen Maiztegi Lete**  
Irailaren 23an, 5 urte.  
Zorionak, printzesa, eta muxu potolo eta goxo bat zuretat. Ondo pasatu eguna.




ARETXABALETA  
**Aimar Iturbe Murgiondo**  
Irailaren 22an, 3 urte.  
Zorionak, txapeldun! Muxu handi-handi bat etxeko danan partetik.



BERGARA  
**Elene Taboada Muruamendiaraz**  
Irailaren 22an, 4 urte.  
Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna. Etxeko guztien partetik, muxu potolo bat.



ARRASATE  
**Elene Ormaetxea Artola**  
Irailaren 22an, 4 urte.  
Ai, Txikita, zapatuan lau urte! Txokolatzeko tarta erraldoi batekin ospatuko dogu? Muxu pilo bat, sorgintxu!



OÑATI  
**Maiu Etxeberria Benito**  
Irailaren 21ean, 6 urte.  
Zorionak, Maiu! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna familia eta lagunekin. Besarkada handi bat. Muxu!



OÑATI  
**Elene Agirrebaltzategi**  
Irailaren 20an, 3 urte.  
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Eta muxu potolo-potoluak etxeko danan partetik, bereziki Malenek.



ARETXABALETA  
**Iraide eta Jon Larrañaga Ormaetxea**  
Iraidek abuztuaren 5ean, 2 urte eta Jonek irailaren 19an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat danon partetik!



ARRASATE  
**Danel Castillo Romero**  
Irailaren 19an, 2 urte.  
Zorionak, bihotza! Bi kandelei putz egiteko prest! Ondo pasatu eguna eta jarraitu horrela. Muxu goxo pila aitaxo, amatxo eta etxeko guztien partetik!



ARRASATE  
**June Canales Diez**  
Irailaren 18an, 4 urte.  
Zorionak, *printzesita!* Primeran pasatu zure eguna. Txokomarrubizko mila muxu! Etxekoen eta Alazne, Aitor, tio Sergi eta tia Azuren partetik.



ARRASATE  
**Unax Aranzabal Vitoria**  
Irailaren 18an, 8 urte.  
Zorionak, mutikote. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo bat etxekoen, eta bereziki, Jon eta Aneren partetik.



ARRASATE  
**Oihan Arriaran Zubillaga**  
Irailaren 18an, 4 urte.  
Zorionak aitaxo, amatxo eta Ekhiren partetik! Oso ondo pasatu eguna eta txokolatada ondo prestatu, danok joango gara-eta!



OÑATI  
**Oxel Blazquez Plazaola**  
Irailaren 17an 6 urte.  
Zorionak, Oxel, zure familixako danon, eta batez be, zure anai Unairen partetik! Ondo pasatu zure merendolan.




ARRASATE  
**Malen Beitia Jara**  
Irailaren 17an, 2 urte.  
Zorionak, pittin! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Besarkada handi-handi eta patxo potolo-potolo bat familiaren eta bereziki Unaxen partetik, Pa!



ARRASATE  
**Iraide Aldea Zubiaga**  
Irailaren 17an, urtebete.  
Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Muxu asko zure familia guztiaren partetik, bereziki aita eta amak.



ARRASATE  
**Garazi Nieto Gorosabel**  
Irailaren 16an, 5 urte.  
Zorionak, sorgintxo! Eskua bete duzu dagoeneko... Arimazuri plazako guztien partetik.




ARRASATE  
**Oxel Arriaran Lagunilla**  
Irailaren 16an, 9 urte.  
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta topera disfrutatu. Maite zaitugu!



ARETXABALETA  
**Nekane Osa**  
Irailaren 16an, 30 urte.  
Zorionak, *guapisima!* 30 urte baina beti guapa! Patxo handi bat!



ARETXABALETA  
**Joxe Miel Uribarren eta Adoratriz Herrasti**  
Joxe Mielek irailaren 16an eta Adoratrizek uztailearen 24an, urtebetetzeak. Zorionak, atona eta amama. Ondo pasatu eta segi hola bixok. Amama, zure eguna aspaldi pasatu da baina... patxo handi bat. Pa!



BERGARA  
**Unai Agirrebeña Altuna**  
Irailaren 16an, 4 urte.  
Zorionak, *txanpion!* Ondo pasatu urtebetetze eguna eta muxu potolo bat danon partetik.



BERGARA  
**Oihan Larrañaga Larrañaga**  
Irailaren 15ean, 6 urte.  
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat danon partetik.



BERGARA  
**Uxue eta Oxel**  
Irailaren 15ean, 10 urte. Zorionak bixoi! Hamar eta zortzi urte. Segi gora orain arte moduan. Patxo handi bana. Ama eta aitxa.



ARRASATE  
**Ainhoa Urrizalki Ayesa**  
Irailaren 15ean, 10 urte.  
Aupa, Ainho! Zu zara-eta buruz behera botatzen gure txapelduna. Zorionak!



ESKORATZA  
**June Larzabal**  
Irailaren 14an, 13 urte.  
Zorionak, *guapa!* Ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo asko eta besarkada handia etxeko danan partetik.



ARETXABALETA  
**Jokin Larrañaga Madinabeitia**  
Irailaren 14an, 6 urte.  
Aupa, txapeldun! Azkenean iritsi da zure urtebetetze eguna. Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo bat etxekuen partetik. Txalo bat!



OÑATI  
**Noa Montero San Vicente**  
Irailaren 14an, urtebete.  
Zorionak, printzesatxo! Urtetxo bat! Asko maitte zaitugu! Zoragarria zara! Txokolatzeko muxu pila bat etxeko danan partetik! Bereziki Paulen partetik!



BERGARA  
**Haizea Iturrospe**  
Irailaren 14an, urtebete.  
Zorionak, sorgintxo! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetzian. Patxo handi bat familia eta lagunaren partetik.




ARRASATE  
**Kepa Urteaga Garcia**  
Irailaren 13an, 36 urte.  
Zorionak, aitaxo! Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat Bittor, Kenare eta amatxoren partetik.



ARRASATE  
**Markel Urionabarrenetxea**  
Irailaren 13an, 5 urte.  
Zorionak, Marke!! Oso ondo pasatu eguna eta marrubizko mila patxo amama Mariatxenen partetik!




ESKORATZA  
**Antton Salaberria eta Tomas Beitia**  
Tomasek irailaren 13an, urtebetetzea eta Anttonek irailaren 20an, 13 urte. Zorionak bioi! Muxu bana etxekoen partetik.



ARETXABALETA  
**Iker Arias Axpe**  
Irailaren 13an, 9 urte.  
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo potolo bat etxeko guztien partetik, baina bereziki Unai eta Eiderrek. Aupa UDA!



ARRASATE  
**Kenare Urteaga Vitoria**  
Irailaren 12an, 4 urte.  
Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu eguna eta mila muxu Bittor, aitaxo eta amatxoren partetik.



OÑATI  
**Mikel Maiztegi Biain**  
Irailaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna. Zure familia danan partetik, batez be aitaxo, Maialen eta Leirenen partetik.



ARRASATE  
**Haizea Zulueta**  
Irailaren 12an, 5 urte.  
Zorionak familia guztiaren partetik gure printzesarentzako. Oso ondo pasatu eguna. Musu handi bat. Muak.



OÑATI  
**Paty Rigault Maiztegi**  
Irailaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, *preziosa!* Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta topera disfrutatu. Muxu pilo bat!



ARRASATE  
**Maria Martiarena Elices**  
Irailaren 11n, 8 urte.  
Zorionak, printzes! Azkenean heldu da eguna... Oso-oso ondo pasatu zure egunian. Txokolatzeko muxutuak. Beñat, Iker eta Ander.



BERGARA  
**Unax Lazkano Palacios**  
Irailaren 9an, 6 urte.  
Zorionak, *rubio!* Ondo pasa maripasa urtebetetze egunean. Patxo pila-pila bat familia guztia eta bereziki OSI taldekoen partetik. Torero!



ARRASATE  
**Consuelo Azkargota Lazkano**  
Irailaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Segi beti bezain guapa eta alai. Maite zaitugu! Etxeko txikiak.



OÑATI  
**Ainhoa Zugasti Sarasketa**  
Irailaren 2an, 2 urte.  
Zorionak, txikitina! Bi urtetxo egin dituzu! Muxu potolo-potolo bat matraila bakoitzean etxeko danon partetik.



ANTZUOLA  
**Izadi Sudupe Larrea**  
Abuztuaren 19an, 3 urte!  
Zorionak eta muxu potolo bat etxekoen partetik!



ARRASATE  
**Maddi Etxagibel Ruidiaz**  
Irailaren 22an, 6 urte.  
Zorionak eta muxu handi-handi bat denon partetik.



OÑATI  
**Malen Salazar**  
Irailaren 18an, 5 urte.  
Zorionak bihotzez gure printsezari etxeko guztien partetik! ondo pasa eguna Malen!

JAIOTAKOAK



**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



**Jon Herran Linazisoro**

Bergara. 3,500 kilo. Irailaren 11n. Gurasoak: Aintzane eta Rafa. Argazkian, Jon, sehaskan.



**Intza Alberdi Agirregomezkorta**

Azkoiti. 3,220 kilo. Irailaren 13an. Gurasoak: Alazne eta Luis. Argazkian, Intza, gurasoekin.



**Haizea Ezkurra Olaizola**

Arrasate. 2,990 kilo. Irailaren 14an. Gurasoak: Leire eta Kepa. Argazkian, Haizea, sehaskan.

BABESLEA

*%10eko deskontua familia ugarietzako  
Arropa eta zapatetan*




Oinetakoak  
Arropa  
Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 17 47  
tipitapa@hotmail.es

Jarraitu gaitzazu  
Facebooken: 

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Imajina	Klariona, kisua	Iragazkorra
	Mendialde ezaguna	* Eskoriatza-ko elizatea	Bih, garau
	Kupela		
	Ez emea		
Ereiten du	Kemenez		
Baztango herria	Usain on		Potasioa
			Gar
Aise		Begira	
Jira		Su	
		Diosal hitza	
		Interjekzioa	
51	Nafarroako ibaia		Röntgen
Senatuko kidea	Bokala		Iodoa

LUMA / ARGAZKIA: JOXEFE DIAZ DE TUESTA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

A	V	I	R	A	T	A	N	S
R	A	G	A	E	L	I		
R	U	R	A	Z	R	A	B	
S			Z	A	R	E	R	
K			A	T	A	R	I	
Z			E	R	A	D	O	
A			L	A	U	P	E	
R			A	R	A	L	A	
I			K	I				

J	N	I	G	J	A	P	O	T
S	A	V	E	L	I	Z	E	H
E	I	E	O	T	A	R	L	O
M	B	A	V	A	P	A	N	M
B	R	A	U	A	K	I	B	A
M	M	N	G	L	N	M	M	
A	A	B	A	N	K	A	I	A
B	A	H	K	O	I	E	F	X

6	6	4	9	6	3	7	4	8
5	8	1	2	9	6	1	8	4
2	6	5	9	1	8	4	7	3
2	9	7	4	1	8	5	3	6
4	2	9	6	7	1	3	5	4
7	3	6	5	9	4	2	8	1
8	4	8	7	6	9	5	4	8
1	5	7	3	2	8	9	6	1
3	9	8	6	4	1	5	2	7



Hieroglifikoak:  
Bider bi.

SUDOKUA

	8		1		2		3
			2	8			
	2		6		5	4	8
3			4		8		7
	9	8	7				
7							
6			8				
		7	2				5
8	2	5		7	4	9	

HIZKI SALDA


Topa itzazu itsasontziko bost atal nagusi.

A	T	R	B	A	K	A	T	B
A	H	K	O	I	E	F	X	E
A	B	R	A	N	K	A	I	A
T	X	M	R	G	L	N	M	M
A	T	O	A	U	A	K	I	B
S	A	A	A	R	P	A	N	M
R	L	O	T	A	R	O	I	E
A	H	E	L	I	Z	E	A	S
P	O	T	A	J	G	I	N	J

HIEROGLIFIKOA

Euskal Herriko biztanlegoa:  
1.503.830,5 pertsona...

DD



## Bi helburu kamiseta bakarrean

Umeak entretenituta egotea eta, bide batez, bizkarrean masajea jasotzea. Ba al da kamiseta horrek baino gehiago ematen duenik?  
www.facebookfail.es



## "Haserre zaudela dirudi neska, tentsioan ikusten zaitut".

MARILO MONTERO | TELEBISTAKO AURKEZLEA

Kate bateko aurkezle batek kate bereko beste bat elkarrizketatzean, badirudi hitz politak eta adeitasuna izan behar direla nagusi. Zer gertatzen zitzaien Marilo Monterori Anne Igartiburu elkarrizketatzen ari zela? Haserre zegoen? Jeloskor? Horrelakoa da eta kitto?  
www.rtve.es



Max. 30°

Min. 13°

Astelehenean, fronte txiki bat gerturatuko denez, arratsaldean hodeiak ugartuko dira.  
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

# goiena

2012-09-17

## HAMARREKOA

**Maialen Chourraut** Umetan deskubritu zuenetik, piraguismoa da 29 urteko lasartearraren bizitza. Eta dedikazioak izan du emaitza: udan Londresen eskuratutako brontzezko domina | TXOMIN MADINA

## "Domina jende askorena da, askoren lanaren emaitza"

### 1. Denborak ematen duen perspektibarekin, nola gogoratzen duzu abuztuaren 2a?

Emozioz betetako egun moduan: lehia garrantzitsua zen, azken lau urteetako azterketa finala. Jende pila bat zegoen estadioan; lehia oso polita izan zen, final gogorra, eta opari batekin bueltatu nintzen.

### 2. Segundo bakarrak aldenitu zintuen Londresen urretik. Egon al da inoiz segundo luzeagorik?

Lehia horrela da; finala oso borrokatua eta ikusgarria izan zela esan nahi du. Ez naiz segundo horretan pentsatzen geratzen: ikuskizun polita eman genuen seinale da.

### 3. Domina jartzera doaz. Nor duzu buruan?


Han zeuden nire familia eta lagunak, eta baita horra heltzen lagundu didan jende guztia ere. Domina jende askorena da, askoren lanaren emaitza; hori argi utzi nahi dut.

### 4. Piraguista eta emakumea. Olinpiar Jokoengatik ez balitz, jakingo genuke nor den Maialen Chourraut?

Ziur aski, ez. Urte asko daramat gogor entrenatu eta lehiatzen eta batez ere Joko hauetan eman dut ezagutzera nire burua; gogorra egiten da hori. Azken egunetako presioa ere... ez da erraza burua hotz mantentzea.

### 5. Londres 2012. Zein momenturekin geratzen zara?

Piraguismoan lehiatzen ginen neskok argazki bat atera genuen irekiera ekitaldia baino lehen; horrekin geratzen naiz, oso berezia izan zen.



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

## "Mundua orekatuko nuke"

"Mundu hau pixka bat gehiago orekatzen saiatuko nintzateke: muturreko gauza asko daude, eta gauzak berdintzen saiatuko nintzateke, denok aukera berdina izateko. Ez kirolean, orokorrean baizik: kirola gauza txiki bat da gosearekin alderatzen badugu".

### 6. Kirolari moduan, zein duzu bertute handiena?

Konstantzia: zerbaite buruan sartzean, bila joaten naiz; egun ona edo txarra izan, horretan pentsatzen dut. Plus txiki bat ematen dit. Akats nagusia? Oso urduria naiz, eta gauzak ateratzen ez zaizkidanean umore txarrez egoten naiz.

### 7. Zintzo itxura duzu; zein izan da egindako azken bekatu aitorgarria?

Ez dakit... Ez lesionatzeko urte osoan asko zaintzen naiz, baina behin Jokoak pasata, skatean ibiltzen ikasten nabil.

### 8. Lo asko egitekoa omen zara. Beharragatik ala nagikeriagatik?

Beharragatik, noski. Entrenamenduak ondo asimilatzeke modu onean lo ondo egitea da; deskantsua entrenamendua ikustezina da. Era aktiboan edo pasiboan, ia egun osoa entrenatzen nabil: nire bizitza piraguismoa da.

### 9. Ikusiko al zaitugu urrezko domina olinpiarra janzen?

Oxala! Etorkizuna ezin du inork asmatu, gogor egingo dut lan domina hori lortzeko. Eslalomean jende on asko dago eta kiniela asmatzea ia ezinezkoa da. Lau urte barru ikusiko dugu; buruan dut Rio.

### 10. Bide batez, zer egin duzu arropa olinpiar polemikoekin?

Maletan dago. Ez dut uste berriz jantziko dudunik. Ez zitzaidan askorik gustatu, baina arropa besterik ez da: uretan eroso nongoen; hortik kanpo polita izan edo ez azalekoa da.

## BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA



Amamak mutu, bilobak gor-mutu?

Passa den astean gertatua, Arrasate ustez progre honetan. Monterron atzeko zumarditik nindoan korrika egiten. Hogeitaz inguruko neska mutil bikote bat ikusten nuen urrunera aulki batean eserita. Beno, neskari gorputz-erdi ikusten nion bakarrik, laguna gainean zeukalako mukiak jan guran. Neskak ez zeukan jolasteko gogorik, ordea, mutila gainetik kentzen saiatzen zen eta. Hurbiltzen ari nintzela "¡Venga, nena, venga!" esaten zion mutilak, limuri bezain temati, eta neskak, ezetz eta ezetz, kasik bultzaka. "¡Vete a la mierda!" jaurti eta Facundo pipiten zezenarena baino mutur luzeagoarekin jaiki zen tipoa. Antzeko eszena pare baten lekuko izan nintzen abuztuan. Intentsitate baxuko, akaso, baina ez horratik garrantzi gutxiko matxismo adierazpen ukazezinak. Zenbat ez ote diren gertatuko. Egun berean leitzen nuen asteleheneko honetan, ikerketa baten arabera, egungo neska asko jendarte berdintzaile batean bizi direlakoan daudela. Uste omen dute behinolako amamak bizi zirela zapalduta baina, euren amek egoera aldarazteko borrokatu ostean, ekitatezko baldintzatan bizi direla eurak. Ez dakit barrez ala negarrez lehertu.

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak

konsulta berria ireki du:

**PronoKal<sup>®</sup> metodoa**

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisua galtze handia - Gosegabezia

Esan baietz betiko

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko